

## Sorkun eta Anari

Emanaldia egin zuten barikuan Arrasaten  
KULTURA26, 00



## Mondrak 1-3 irabazi dio Beriori etxetik kanpo

Aloñak galdu egin du Mutrikun eta UDak berdindu Idiazabalen kontra  
KIROLA, 12-13

## Aukeran taldea

'Bideak' ikuskizuna egin zuen Elgetan  
KULTURA, 22



# ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko urriaren 2a • 3. urtea • 116. zenbakia • 0,90 euro

## Errosaixo Bixamon eguna ospatuko dute gaur Oñatin

*Eguenean hasi ziren San Migel jaiak gaur izango dute azken eguna, eta herria mozorrotu egingo da*

San Migel jaiak agurtzeko, sokamuturra egongo da arratsaldeko bostetan eta kontzertuak txosnagunean. Eta iluntzean Joselu Anaiek joko dute herriko plazan. Hori bai, gaur Oñatira joateko mozorroa eroatea ezinbesteko izango da. Aretxabaletan, Angiozarren eta Garagartzan ere ospatu dituzte San Migel jaiak aste bukaeran. **2-4**

**HERRI EGUNA**  
Milaka lagun batu ziren zapatuan Oñatin azoka ikusi eta sagardoa dastatzera, besteak beste

**MOZORRO ERAKUSKETA**  
Herriko koadrilek mozorrotuta igaroko dute Errosaixo Bixamon eguna

**AZOKA OPAROA**  
Aretxabaletan jaki ekologiko eta artisauen 50 bat postu jarri zituzten zapatu goizean

**AUZOETAN ERE JAI**  
Angiozar eta Garagartzan ere ospatu dituzte San Migelak; Angiozarren danborrada egin dute

### DANBAKA-RAKO SAILKATUAK AUKERATUTA

Epaimahaiak dagoeneko hautatu ditu Danbakaren bigarren edizioan parte hartuko duten 19 talde eta bakar-lariak. Gogoratu behar da 20.a zuzen zeuk aukera dezakezula [danbaka.com](http://danbaka.com) webgunean bozkatuta. Xehetasun guztiak barruko tarte berezian dituzue. **23-25**

**DANBAKA))))))**

## Antzuolako erretiratuen Kultura Astea

Bihar hasi eta hilaren 8ra arte Kultura Astea egingo dute Antzuolako erretiratuek. Komunikazioaren gaineko hitzaldi batekin irekiko dute. **9**

## Algara ludoteka, zabalik

Aretxabaletako Algara ludotekak gaur, astelehena, irekiko ditu ateak. 3 eta 12 urte arteko neska-mutikoei emango die zerbitzua. **9**

## Leintz Eskola Kiroleko ikasturte berria aurkeztuko da bihar **9**



## ARANZADIRI EMAN ZIOTEN ATZO OIARTZUNEN KILOMETROEN LEKUKOA

Bergarako Aranzadi ikastolak du datorren urteko Kilometroak jaia antolatzeko ardura, eta atzo egin zuten ofizial; hain justu, Joserra Zubizarreta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko presidentek jaiaren lekukoa eman zienean Angel Mari Eguren Aranzadiko lehendakariari eta Patricia Urrutia zuzendariari, Oiartzunen. "Oso pozik eta aldi berean ardurarekin hartu dugu lekukoa", esan zuten; "izan ere, erronka handia dugu aurrean", gehitu zuten. **8**

ARGAZKI PRESS



# GEUREAN

- Arrasateko bi lagunek hartuko dute parte asteen Mihiluze programaren denboraldi berrian | 6
- Barikuan jaso zuten lau mendizaleek Maritxu Kajoi jaiko inbutu preziatua | 6

**Gazte bulegoetako  
oporretako  
gomendioek  
badituzte  
irabazleak | 8**

**SAN MIGELAK**



JOSETXO ARANTZABAL

Jende ugari gerturatu zen zapatuan unibertsitate ondoan egin zuten feriara. Eguerdian behi, gazta, fruta... onenen sariak banatu zituzten.

**HERRI EGUNA, OÑATIN** | AURTENGO HERRI EGUNEAN JENDE UGARI IBILI DELA ADIERAZI ZUTEN JAI BATZORDEKOEK

## San Migel jaietako azoka eta artisauen erakusketa, herri eguneko protagonistak

*Sagardo dastatzeak, herri bazkariak eta herri kirolek ere izan zuten lekua txantxikuen egunean, eta kaleak jendez gainezka egon ziren egun osoan, eguerdian batez ere*

Goreti Elortza

Egunean hasi eta gaur arte iraungo du festak Oñatin. San Migel jaietako egunik garrantzitsuenetakoa Herri Eguna iza-

ten da, eta aurten ere hainbat ekitaldi antolatu ziren zapaturako, txantxikuen egun handian: sagardo-dastatzea, herri azoka, herri bazkaria, herri kirolak... Dene-tik izan zuten herritarrek.

Goizean goiz jaikita asko ziren Nekazarien Elkartek Udaren laguntzarekin antolatutako herri azokara batu zirenak. Ardiak, gazta, barazkiak, frutak... izan zituzten oñatiarrek euren egunean, eta lehiaketako irabazleen izenak 13:30ak aldean jakin genituen. Nekazarien Elkarteko Aitor Olalde esan zigunez, behi asko omen zeuden eta baserritar bakoitzeko buru kopurua mugatu egin behar izan dute aurtengoan.

Unibertsitate barruan artisa-  
sauen erakusketa egin dute aurten

ere, eta guztira 19 postu jarri zituzten, zeramika, koadro zein larruekin. Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Burgostik etorritako artisauek egon ziren han.

### SAGARDO DASTATZEA FORU PLAZAN

Herri eguna borobiltzeko, Gipuzkoa osotik ekarri zituzten kupe-lak zapatuan. Jende ugari animatu zen sagardo desberdinak dastatzera eta nota jarri zienik ere izan zen.

Gaur, astelehena, Errosaixo Bixamona ospatuko dute.

### Egitaraua

#### URRIAK 2, ASTELEHENA

- **09:00:** Iriarena txistulari bandaren eskutik.
- **09:30:** Zezentxoak eta *poney*-ak herriko plazan.
- **10:00:** Sokamuturra ohiko kaleetan barrena, Arno abeltzaintzako zezenekin.
- **12:00:** Oñatiko Musika Bandaren kalejira eta Incansables txaranga bazterrak alaitzen. Gainera, dantzaldia Erretiratuen Elkartean.
- **12:00:** Koadrilien mozzorro lehiaketa. Segidan, paella jana txosna-gunean Laixanek antolatuta.
- **16:30:** Iriarena txistulari bandarekin.
- **16:30-17:00:** Zezentxoak eta *poney*-ak herriko plazan.
- **17:00:** Sokamuturra ohiko kaleetan barrena.
- **17:00:** Kontzertua txosna-gunean.
- **20:00-21:00:** Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia herriko plazan. 23:00etan jarraituko dute.

#### MARTITZENA 3

- **18:30-20:30:** IV. Ageriko Margo Lehiaketako lanak erakusketan ipiniko dituzte kultura etxeko erakusketa aretoan. Hilaren 11ra arte egongo da zabalik, astelehenetik domekara.

### Saridunak

#### • FRUTAK

- 1. saria:** Felix Azkargorta
- 2. saria:** Joxe Mari Lizarralde
- 3. saria:** Xabier Campo

#### • BARAZKIAK

- 1. saria:** Maria Errasti
- 2. saria:** Xabier Campo
- 3. saria:** Joxe Mari Lizarralde

#### • ARDIAK

- 1. saria:** Aritz San Migel
- 2. saria:** Aitor Arnaiz
- 3. saria:** Bixente Urtzelai

#### • BILDOTSAK

- 1. saria:** Aitor Arnaiz
- 2. saria:** Ramon Ugarte
- 3. saria:** Mari Paz Letamendi

#### • AHARIAK

- 1. saria:** Mari Paz Letamendi
- 2. saria:** Aritz San Migel
- 3. saria:** Aitor Arnaiz

#### • GAZTA

- 1. saria:** Ramon Ugarte
- 2. saria:** Nikolas Segurola
- 3. saria:** Bixente Urtzelai



SAN MIGELAK




Hainbat sagardo mota dastatzeko aukera izan zuten herritarrek Foru plazan, zapatu goizean.



Presoen egoera salatzeko manifestazioa egin zuten.



Ramon Ugartek jaso zuen gazta onenaren saria.



Herri bazkaria egin zuten ehunka lagunek kiroldegian. Bete-beteta egon zen.

• HERRI AZOKAN ZIOTENA



ALIX ETA SARA | OÑATI

Herri Eguneako ferian aurkitu genituen bi neskek: "Animalia asko ikusi ditugu. Gauean ere irtengo gara barraketan ibiltzera", esan ziguten. Gaur *Madrileño* jantzita irtengo dira.



AMAIA BIKUÑA | OÑATI

Gehien gustatzen zaion eguna Herri Eguna dela esan zigun Amaiak: "Gauza asko dago ikusteko, eta giro bikaina egoten da", zioen pozik.



FELIX AZKARGORTA | OÑATI

12 urte inguru daramatza Felixek San Migel jaietako azokan postua jartzen. Bere baserriko frutak saltzen ditu, eta zera esan zigun: "Pozik gaude, aurten ere lehenengo saria eman digute-eta. Gainera, lote onenaren saria ere eman digute". Egia esanda, askorik ez zutela saldu esan zigun Felixek, baina pozik zegoen jasotako sariarekin.



ELENA TXINTXURRETA | OÑATI

Unibertsitateko artisaun erakusketara ekarri zituen Elenak bere zeramika lanak: "Gasteizen bizi naizen arren, Oñatikoa naiz eta urte askoan etorri izan naiz erakusketara. Oso giro ona egoten da, eta aspaldi ikusi gabeko jendea agurtzen primeran pasatzen dut", esan zigun. Zeramikazko ontziak egiten ditu, eta bikain moldatzen da.



**URKULU**  
FERRETERIA • BRICOLAGE  
INDUSTRIA HORNIDURAK

*hurbila eta profesionala*

Torrebaso Pasealekua, 16 • 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)  
Tel. 943 71 30 30 • Fax 943 71 25 55 • urkulu@cadena88.com  
www.orkulu.com





## SAN MIGELAK

ARETXABALETA | ARTISAU FERIA ETA XII. AZOKA BIOLOGIKOA EGIN ZUTEN ZAPATU GOIZEAN ARETXABALETAN

## 50 postu jarri zituzten Durana kalean zehar zapatuan

*Euskal Herri osotik etorritakoek postuak jarri zituzten, eta taloa dastatzeko aukera egon zen zapatu goizean, baserriar giroan*

Goreti Elortza

Egubakoitzean hasi eta domekara arte ospatu dituzte Aretxabaletan San Migel jaiak.

Zapatua izan da jaietako egun jendetsuena. Izan ere, egun hartan egin zuten San Migel jaietako azoka eta herri bazkaria aretxabaletarrek. Goizean goiz hasita, txistularien dianarekin batera ugari izan ziren baserriar jantzi azokara gerturatu ziren herritarrek. Hain zuzen ere, berrogeita hamar bat postu jarri zituzten Durana kalean zapatu goizetik eguerdira bitartean.

Horietatik hamahiru produktu ekologikoekin osatutakoak izan ziren. Horien artean Kurtzebarri ikastolako umeen postua ere bazegoen. Kurtzebarri ikastolakoek egun berezi hori

aprobetxatu zuten euren ortuko produktuak saltzeko. Era berean, DBHko 4. mailako ikasleek tortilla pintxoak jarri zituzten herriko plazan, eta borondatea eskatu zuten haien truke. Euren helburua Holandara egingo duten ikas bidaiarako dirua lorzea zen.

Gainontzekoak Euskal Herri osotik etorritako artisauen postuak izan ziren: eztiak, pilotak, turroiak, larrukiak... Denetik ikus zitekeen zapatuko azokan.

Leizarra Musika Eskolako trikitilariak kalejira egin zuten herriko kaleak alaitzeko 11:30ak aldera, eta salda eta taloa dastatzeko aukera izan zen herrian, goiz osoan.

### HERRI BAZKARIA, KUPELA ETA GUZTI

15:00ak aldean eman zioten hasiera aretxabaletarrek herri bazkariari. Petritegi sagardotegitik bi kupel handi ekarri eta sagardotegiko menuaz giro bikaina izan zuten herriko plazan elkartutako 420 lagunek. Askatasunak antolatutako bazkariaren ostean bertsolariak eta jokoak ere egin zituzten herriko plazan, iluntzera arte.



JOSETXO ARANTZABAL

Kurtzebarri ikastolako umeek ere izan zuten euren ortuko produktuak saltzeko aukera.



JOSETXO ARANTZABAL

Zapatuan plazako arkupeetan egindako herri bazkarian 400 lagun inguru elkartu ziren.

ANGIOZAR AUZOA | BARIKUA IZAN ZEN JAIEN EGUN HANDIA

## Eskola txikiko danborrek hartu zuten auzoa

M.B.

Asteburu osoan barrena ospatu dituzte San Migel jaiak Bergarako Angiozar auzoan. Hainbat ekitaldi izan dira, baina jende gehien batu duenetakoa barikuan egindako danborrada izan zen. Eskola txikiko gurasoen ekimenez egin dute danborrada aurten, estreinakoz, eta eskola txikiek auzo zein herri txikien bizi iraupenerako duten garrantzia barreiatu zuten danbor hotsekin batera.

80 bat lagun batu ziren: eskola txikiko ikasleak, auzoko haurrak, gazteak eta nagusiagoak. 50 bat danborrari aritu ziren eta 30 bat musikari. Gazteenak 2 urte zituen eta nagusienak 50 bat. Oihan Vegak propio konposatutako *Angiozarko martxa* eta *San Martin martxa* jo zituzten.



JOSETXO ARANTZABAL

80 bat lagunek hartu zuten parte danborrari eta musikari artean.

Jaien beste berrikuntzetako bat San Migelen zeruratzea izan zen. Orain arte jaien azken egunean egin izan badute ere, orain-

goan barikuan zeruratu zuten danborradarekin eta San Migel egunarekin bat eginez. Mezu eta guzti joan zen, ohi bezala.

GARAGARTZA AUZOA | ASTEBURU POLITA IZAN DUTE

## Lezetxikoko laminak eta Neanderthalak jaietan

M.B.

Egubakoitz gauean ekin zieten San Migel jaietako Arrasateko Garagartza auzoan. Lezetxiki gertu dute, eta, azkeneko urteetan gertatu bezala, kobazuloko Neanderthalgo gizakiak eta inguruetako laminak bisitari izan zituzten barikuan. 25 bat

batu ziren, plazan, eta auzotarren aurrean dantza egin zuten.

Jesus Askasibar Garagartzako auzo alkatearen esanetan, giro ederrean igaro dituzte jaiak. Atzo, esaterako, egun polita pasatu zuten, gaur egun auzoan bizi ez diren senitarteko ugari hurreratu zelako egindako auzo bazkariara.



JOSETXO ARANTZABAL

Lezetxikoko Neanderthalgo gizakiak eta laminak auzoan izan ziren barikuan.



GAZTELEKUA | IKASTURTE HASIERAKO ASKARIA EGIN ZUTEN



JON BEREZIBAR

Askaria (merienda) ikusita arrapaladan sartu ziren gazteak.

## Euskararen erabilera izango da aurtengo lehentasuna

*Asmo ugariarekin, ikasturte berriari ekin zioten barikuan Eskoriatzako gaztelekuan gazte eta begiraleek*

Jon Berezibar

12 eta 16 urte bitarteko gazte-txoei aisialdirako alternatibak eskaintzeko nahiarekin, joan den urtean ireki zituen ateak Eskoriatzako gaztelekua. Arrasateko Txatxilipurdik kudeatuta, frontoian dauzkate lokalak eta egubakoitzetik hasi eta domekara arte arratsalde egongo da zabalik. Egubakoitzetan 17:00etan zabaltzen dute, 20:30ak arte. Asteburuan, berriz, 16:30an ireki eta 20:00ak arte egoten da zabalik gaztelekua. Bi begiralek egiten dituzte animatzaile lanak:

Itziarrek eta Karmelek, hain zuzen ere.

Euskara eta aisialdia uztartu nahi ditu egitasmoak, eta, hain zuzen ere, aurten, euskararen erabilera izango da lehentasunezko helburuetako bat. Hala azaltzen du Karmele Pagaldaik, begirale-etako batek: "Oso euskara gutxi egiten dute hona etortzen diren neska-mutikoei eta iaz aisialdi eskaintza gehiago landu bagenuen, aurten euskararen erabilpenean gehiago sakondu gura dugu". Nabaria da adin horretan gaztetxoek aisialdirako dituzten aukera urriak, eta horren jabe

dira ere begiraleak. Hala, lokala eta egoteko leku bat eskaintzeaz gain, askotariko ekintzak antolatzen dituzte gaztelekuan, aipatutako bi helburuak ardatz izanda.

### GAZTETXOAK AZTORATUTA

Askari berezia egin zuten egubakoitzean ikasturte berriari ekitako. Bostetan zeukaten hitzordua egin eta gaztetxoak ordu-rako ate joka zebiltzan, barrura sartzeko irrikaz.

Aurtengoa bigarren urtea izango da gaztelekuarentzat, eta, Karmelek aipatu bezala, "pozik" daude jasotako erantzunarekin. Gaztetxo askok ohitura hartu ei du bertara joateko eta harreman eta partaidetza onak dituztela azpimarratzen du. Hutsune bat egotekotan euskararen erabilpen urria da, eta horretan egingo dute lan aurrerantzean.

### • BEGIRALEAK ETA GAZTETXOAK



KARMELE ETA ITZIAR | BEGIRALEAK

**"Herrian dauzkaten aisialdirako aukera urriak ikusita, garrantzitsua da denbora libreko ekintzak eskaintzea, eta horretarako dago gaztelekua"**

"Denbora librerako oso aukera gutxi izaten dituzte 12 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoei, eta garrantzitsua da hutsune hori ekin-tzekin betetzea, herrian oso alternatiba gutxi eskaintzen zaizkie-eta. Iaz zerbitzua martxan jartzeko ahalegina egin bagenuen, aurten gehiago landuko dugu euskararen erabilpenaren kontua, euskaraz egiteko oso ohitura txikia daukate-eta, nahiz eta guztiek jakin arren". Karmele iaz ere izan zen begirale, baina Itziar arrasatearrak egubakoitzean egin zuen lehen eguna. Bi neska horiek arduratuko dira antolaketaz.



INMA, ELI ETA OIHANE | ESKORIATZA

**"Gaztelekua asko gustatzen zaigu, baina kanpora irteerak ere egingo genituzke gustura"**

Beti-beti joaten direla diote Eskoriatzako hiru neskatok horiek, eta beharrezkotzat jotzen dute gazteleku bat izatea, euren ere egoteko lekuak behar dituztelako: "Hala ere, guk nahiko genuke lokal-etik kanpo ere ekintza gehiago eta irteerak antolatzea: zinema-ra, eskiatzera...". Eskatzea libre da, baina, era berean, esaten dute oso pozik daudela bertan egiten dutenarekin eta aurtengo ikas-turtea ere bertan egingo dutela diote.



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com





Maritxu Kajoiren irudipean eman zieten egubakoitz iluntzean mendizaleei saria.

GORETI ELORTZA

## Lau mendizaleri eman zieten inbutu preziatua

*Ardoa eta gazta banatu zuten 18:30etik aurrera, eta 20:15ean inbutuak entregatu zizkieten mendizaleei*

Goreti Elortza

Egubakoitz arratsaldean ospatu zuten Maritxu Kajoiko Bedera-tziurrena arrasatearrek.

18:30ean hasita ardo eta gazta banatu zuten Komisiokoek Maritxu Kajoiren irudiaren azpian. Jende ugari gerturatu zen bertara.

Eta 20:15ak aldean eman zioten hasiera inbutu preziatuen ekitaldiari. Aurtengoan, lau mendizalek eraman dute inbutua: Bittor Amozarrain, Iban Silvar, Josu Juan Llodio eta Mikel

Sasiain izan ziren omenduak. Gasherbrum II, Pakistango herrialdean dagoen 8.000 metroko mendia igo dute lau mutil gazte horiek, bi espedizio desberdinetan. Hori dela eta, Komisiokoek aurten lau mendizale horiek inbutua merezi dutela azaldu zuen Iratzeak, ekitaldiko aurkezleak.

Horrela, bada, inbutuak buru gainean jarri zizkieten herriko lau neskak. Inbutuak emanda, lau mutil gazteak izan ziren ardo eta gaztaren bigarren txandari hasiera eman ziotenak.

Inguratutako jendearen artean ardoa eta gazta banatu zuten inbutua buru gainean zutela lau gazteok.

Ekitaldi horrekin Maritxu Kajoirako astebete falta dela gogorarazten du Komisiokoak. Urtero ematen zaio inbutu preziatua herriaren izenean zerbait berezia egin duen norbaiti.

### ETXERAT-EK DEITUTAKO KALE AGERRALDIA

Gaueko zortzietan herriko plaza bete-bete egin zen Etxerat-ek deitutako kale agerraldia zela-eta. Han, *Euskal preso eta iheslari politikoak Etxera* lelopean hainbat euskal presoaren egoera salatu zuten bertaratuek. De Juana presoaren egoera larria salatu zuten, besteak beste.

### • 2009RAKO PREST IZAN GURA DUTE OSPITALEA



JON BEREZIBAR

### PROIEKTUA AZALDU ZUEN SAILBURUAK

Egubakoitzean aurkeztu zuten Debagoieneko ospitalea handitzeko proiektua. Bertan izan ziren Gabriel Inclan –Osasun sailburua– eta Osakidetzako zuzendari nagusia. Lehen faseko lanei 2007an ekingo diete eta urte bi iraungo dute asko jota. 2008. urte amaierarako lehen eraikina erabat operatibo egongo dela adierazi zuen sailburuak. Instalazio hobek, espezialitate gehiago eta zerbitzu hobetuak izango ditu ospitale berriak.

### • PRESAREN ALDEKO MOBILIZAZIOAK



IMANOL SORIANO

### BIZI OSORAKO ESPETXE ZIGORREN KONTRA

Espainiako Auzitegi Nazionalak indarrean jarritako *Parot doktrinaren* kontrako hainbat mobilizazio izan dira egunotan. Egue-nean, esaterako, elkarretaratzea egin zuten LAB sindikatuko ordezkariak Bergarako epaitegiaren aurrean, Iñaki De Juanari elkartasuna adierazteko. Arrasaten bertan gogoan izan dituzte Iñaki Gaztañaga –2018ra arte atzeratu diote kaleratze data– eta Jon Agirre aramaioarra –2011ra arte ez kaleratzeko erabakia hartu dute–.

## Arrasateko bi lagun 'Mihiluze' saioan ikusiko ditugu asteon

*Maidar Murua eta Maitane Gomez de Segura urriaren 3ko, 4ko, 5eko eta 9ko saioetan egongo dira*

M.B.

Gaur, astelehena, ekingo dio ibilbide berriari ETB1 kateko *Mihiluze* saioak. Hainbat berrikuntzarekin dator *Mihiluze*: denboraldi berriaren egunero emango dute, astelehenetik eguenera,

21:30ean, ordu erdiz. Bestalde, buruz buru jardungo duten hiru taldeen kide kopurua ere aldatu egin da; talde bakoitza bi kidez osatuta egongo da eta ez hiruz, aurreko denboraldian bezala.

Talde horietako bat Arrasateko bi lagunek osatzen dute. 29 urteko Maidar Murua eta Maitane Gomez de Segura dira eta bihar hasi eta eguenera arte gaueko ikusiko ditugu *Mihiluze*-n. Baita datorren astelehenean ere, urriaren 9an. Izan ere, galderaerantzun azkarretan, SMSak asmatzeko orduan eta, batik bat,

bertso proban nahiko ondo ibili dira. Hala, puntuak batzen joan eta laugarren saiora arte kanporatuak ez izatea lortu dute.

### ESPERIENTZIA POLITA

Bi arrasatearrek oso pozik daude *Mihiluze*-n parte hartu dutelako. "Oso ondo pasatu dugu", esan digute, "eta jendea animatu nahi dugu parte hartzera. Aurkezle zein gainerako lantaldea oso jatorra da, etxean bezala egon gara. Esperientziak merezi izan du". Gainera, diru multzo polita irabazi dute...




JOSETXO ARANTZABAL

Besteak beste, La Perlara eta bazkaltzera joango dira irabazitako diruarekin.



# Debagoieneko WEBGUNEAK



**AHOLKULARITZAK**  
ESTRADOS  
www.consultoria.estrados.com

**ANTZINAKO ALTZARIAK**  
ZUMADIA  
www.zumadia.com

**AKADEMIAK**  
BASTIDA  
www.bastida.es

**ALTZARIAK ETA APAINKETAK**  
BZ-SISTEMAS  
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas  
MARRUBI  
www.marrubi.com

**ARETOAK**  
360 ARETOA  
www.360aretoa.com

**ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK**  
MARIA JESUS  
www.mjargazki.com

**AROZTEGIAK**  
ARREGI  
www.goiena.net/blogak/arregi  
AZKARATE  
www.goiena.net/blogak/azkarate

**ASEGURUAK**  
BRIZ ASEGURUAK  
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak  
WINTERTHUR  
www.winterthur.es

**AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA**  
AUTOS ARETXA S.L.  
www.autosaretxa.com  
AUTOS RIBEGOLA –BMW-  
www.autos-ribegola.com  
GALLASTEGI MOTOR SPORT  
www.goiena.net/blogak/gallastegi

**AUTO-KONTZESIONARIOAK**  
4QUATTRO 4  
www.goiena.net/blogak/4quattro4

**BIDAIA AGENTZIAK**  
BARCELO  
www.barceloviajes.com

**BITXITEGI TAILERRA**  
OSCAR VITORIA  
www.goiena.net/blogak/vitoria

**ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK**  
ARETXARGI  
www.goiena.net/blogak/aretxargi

**ELEKTRIZITATE MATERIALAK**  
SETALDE  
www.setalde.com

**ERAIKUNTZAK**  
CONSTRULAN  
www.construlansl.com

**ERROTULOAK**  
PANDO  
www.goiena.net/blogak/pando

**ESTETIKA ZENTROAK**  
ANGELA  
www.angelaestetika.net  
GUZTIZ EDER  
www.goiena.net/blogak/guztizeder  
LILURA  
www.lilura.com  
MAIER  
www.goiena.net/blogak/richimaier

**GARBIKETAK**  
HEMEN  
www.hemen-garbiketak.com

**GIMNASIOAK**  
IRUDI SPORT  
www.goiena.net/blogak/irudisport

**HARATEGIAK**  
LANDALUZE  
www.landaluze.com

**HAUR PARKEAK**  
OKIPARK S.L.  
www.goiena.net/blogak/okipark

**HESTEBETEK**  
URDEKI  
www.goiena.net/blogak/urdeki

**HIZKUNTZA AKADEMIAK**  
CIM-OÑATI BAI & BY  
www.cim-idiomas.com

**HOTELAK**  
HOTEL MONDRAGON  
www.hotelmondragon.com

**ILE APAINDEGIAK**  
RICHI  
www.goiena.net/blogak/richimaier

**INFORMATIKA**  
DCA COMPANY  
www.dcacompany.com

**INGENIARI GEOLOGIKOA**  
HARRILUR  
www.harrilur.com

**INMOBILIARIAK**  
ANBOTO  
www.inmoarrasate.com  
ARRIETA & SAN MIGUEL  
www.arrietasanmiguel.com

**KOROSTI**  
www.inmokorosti-com  
UDALATX  
www.goiena.net/blogak/udalatx

**JANARIAK**  
GERTU  
www.goiena.net/blogak/gertu

**JANTZI DENDAK**  
MARKIEGI  
www.goiena.net/blogak/markiegi  
UDALAITZ  
www.goiena.net/blogak/udalaitz

**JATETXEAK**  
BASTER ALDE  
www.baster-alde.com  
DRAGON ORIENTAL  
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental  
DUKIENA  
www.goiena.net/blogak/dukiena  
MAULANDA  
www.goiena.net/blogak/maulanda

**LANTEGI ETA TAILERRAK**  
TALLERES CARPINS S.L.  
www.carpinsa.com

**LANDETXEAK**  
UXARTE LANDETXEAK  
www.goiena.net/blogak/uxarte

**LEIHOAK**  
ARGI-PLASTIK  
www.goiena.net/blogak/argi-plastik  
EGO  
www.goiena.net/blogak/ego

**LORADENDAK**  
EKILORE  
www.goiena.net/blogak/ekilore  
MAYTE  
www.goiena.net/blogak/mayte

**OINETAKOAK**  
KORO ZABALETA  
www.goiena.net/blogak/korozabaleta  
OPARIAK  
MERKEOPARI  
www.goiena.net/blogak/merkeopari

**OPTIKAK**  
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA  
www.goiena.net/blogak/multipticas

**OSTALARITZA**  
GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK  
www.goiena.net/blogak/garaia

**PUBLIZITATE AGENTZIAK**  
ADOX  
www.adoxnet.com

**SKATE&SNOW**  
LAINO  
www.laino.info

**SUKALDEKO ALTZARIAK**  
BASTIDA SUKALDEAK  
www.goiena.net/blogak/bastida

**TABERNAK**  
EZKUTU  
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly  
GUREA  
www.goiena.net/blogak/gurea  
HAMAIIKA  
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna  
ORLY  
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly  
ZIRIPOT  
www.goiena.net/blogak/ziripot

**TATUAJEAK**  
GANESHA  
www.goiena.net/blogak/ganesha

**TAXIAK**  
GORKA GARAI  
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

**UDAL ZERBITZUAK**  
GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA  
www.aizue.com

**UMEENDAKO ARROPA**  
HAURTXOA  
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

**ZERAMIKAK ETA BAINUAK**  
URBIETA  
www.goiena.net/blogak/urbieta

**ZERBITZU DIGITALAK**  
ATAI  
www.goiena.net/blogak/atai

**ZUR LANTZAILEA**  
ELEJALDE  
www.goiena.net/blogak/elejalde

Bisita ezazu:  
[www.goiena.net/merkatua](http://www.goiena.net/merkatua)

Iragarkia jarri nahi baduzu,  
deitu 943 71 23 91 zenbakira.





UNAI AZKARATE

Angel Mari Eguren Aranzadiko ikastolako lehendakariak pozik erakusten du Oiartzungoek emandako lekukoa.

## Aranzadi ikastolak eskuan du Kilometroen lekukoa

*Bergarako ikastolari dagokio datorren urteko ikastolen aldeko jaia antolatzea; atzo hartu zion errelebua Oiartzungo ikastolari*

Monika Belastegi

Urte osoa prestakizunetan ibili ondoren, erantzun ezin hobea izan zuen atzo Oiartzungo Haurtzaro ikastolak bere egun handian. Halakoetan horren garrantzitsua den eguraldia lagun izan zuten, gainera, eta milaka lagunek egin zuten bat *inGo Yeu! inGo Neu!* leloarekin.

Han izan ziren baita ere Bergarako Aranzadi ikastolako hain-

bat ordezkari. Eurek dute datorren urteko Kilometroak jaia antolatzeke ardura, eta atzo egin zuten ofizial; hain justu, Joserra Zubizarreta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko presidentek eta Oiartzungo ikastolako ordezkariak jaiaren lekukoa eman zieten Patricia Urrutia Aranzadi ikastolari zuzendariari eta Angel Mari Eguren lehendakariari.

Pozik hartu zuten lekukoa Aranzadi ikastolakoek. Urrutia

zuzendariak esandakoaren arabera, "sentsazio nahasketa" izan zuen lekukoa hartzeko unean. "Oso pozik eta aldi berean ardurarekin hartu dugu lekukoa; izan ere, erronka handia dugu aurrean", gehitu zuen.

Aranzadi ikastolak aukeratu ditu dagoeneko Kilometroak 2007ko leloa eta irudia: *Argi daukagu* izango da Aranzadikoek hedatuko duten leloa eta irudian, bonbillak eta argiaren haria ikusiko dira. Horrekin batera, ibilbidea trenbide zaharretik joango dela ere argi daukate, nahiz eta, Urrutiak aurreratu duenez, oraindik gauza asko dagoen zehazteko.

## Oporretako gomendioek badituzte irabazleak

*Arrasateko Gazte Bulegoko saria Jone Uriartek eroan du; Bergarakoa, berriz, Gorka Martinezek*

Monika Belastegi

Arrasateko eta Bergarako Gazte Bulegoek -Gipuzkoako beste hainbatekin batera- antolatutako *Gomendatzen dizut* sariketarako baditu irabazleak.

Arrasateren kasuan, Jone Uriarte 20 urteko arrasatearrak jaso du saria -500 euroko oporraldia nahi duen bezala gastatzeko-. Marokoko aterpe-

txe bat gomendatu du arrasatearrak; hain justu ere, Merzougan, Erg Chebbiko dunetan dagoen Atlas du Sable aterpe-txea.

Arrasateko bulegoan 16 gomendio jaso dituzte, 15 euskaraz eta bat gaztelaniaz, eta gehienak bisitarako lekuen gainekoak izan dira: hiriak, paisaiak, txokoak...

Begararen kasuan, Gorka Martinez 23 urteko bergararrak jaso du saria. Portugalgo Figueira Da Foz hiria gomendatu du gazteak. Bergarako bulegoan inoiz baino gomendio gehiago jaso dute: 24, hain justu, guztiak euskaraz. Eta gehienak nazioartekoak.

## Arrasateko egoitzaren eraso gaitzetsi egin dute

*Alderdi Sozialistaren egoitzari eraso egin zioten eguen gauean*

A.G.

PSE-EEK, Ezker Batuak eta PPK gogor gaitzetsi dute Alderdi Sozialistaren Arrasateko egoitzak eguen gauean jasotako eraso. Eguenean, 21:15ak aldera, bi molotov koktel jaurti zituzten Alderdi Sozialistak Olarte kalean duen egoitzaren kontra. Koktelak kanpoaldean lehertu ziren eta sua eragin

zuten. Bizilagunek itzali zuten sua. Haren eraginez, belztuta geratu zen kanpoaldea.

Miguel Buen PSE-EEren Gipuzkoako idazkari nagusiak eraso gaitzetsi eta Batasunari "bere mugimenduan dauden biolentoak bazter ditzala" eskatu zion. Antton Karrera EBren Gipuzkoako koordinatzailearen esanetan ere, "Batasunak erasoak kondenatu egin behar ko lituzke bake prozesuak aurrera egin dezan".

PP alderdiak, berriz, elkartasuna adierazi dio Alderdi Sozialistari, eta, haren iritziz, "terroristak gero eta indartsuago sentitzen dira Gobernuaren ahuldadeagatik".

• AZKOITIA ABADARI AGUR ETA MENDIZABALI ONGIETORRI EGIN ZIETEN ZAPATUAN

### ZAPATUKO MEZAN HARTU ZUEN ERRELEBUA MENDIZABALEK

Ia 10 urtez Santa Marinako parroko izan eta gero, agur esan zioten zapatuan eliztarrek Xabier Azkoitia abadeari. Juan Kuz Mendizabal 43 urteko ormaiztegiarra izango da Santa Marinako parroko aurrerantzean. Zapatuan, 19:00etako mezan hartu zion errelebua Mendizabalek Azkoitiari. Azkoitiaren esanetan, "oso zorionsu" izan da Bergaran eta "jendearen maitasuna" berarekin erango duela garbi dauka. Azkoitia Madrilera doa urte batzuetarako. Hango Unibertsitate Pontifikalean Bioetikan doktoretza egingo du, Biologia lizentziatura ikasiko du eta erabaki etikoaren gaineko masterra egingo du. Irudian ikus daitekeen bezala, Sierbetan batu eta hainbat lagun eta herritarrek opariak egin zizkieten.



IMANOL SORIANO



## Albiste izango da

DEBAGOIENA | AINGERU GUARDA EGUNA ESKORIATZAN

### Jose Luis Iñarraren aldeko meza egingo dute gaur Arrasaten

Jose Luis Iñarra zena izango dute gaur, astelehena, gogoan Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiaren hil zeneko 30. urtemugarekin bat eginez. Elizkizun berezia egingo dute parrokoaren alde, 19:00etan. Besteak beste, meza abestua izango da. Hori horrela, parrokiatik jakinarazi dutenez, hileta elizkizunak 18:00etan izango dira gaur, On Jose Luis Iñarraren mezarekin bat ez egiteko. Bestalde, beste elizkizun berezi bat ere izango da, Eskoriatzan. 18:00etan, Aingeru Guardaren egunarekin bat eginez, Aingeru Guarda ermitan meza entzuteko aukera egongo da.

ARETXABAETA | ADIN BAKOITZAK ORDUTEGI BAT DU

### Gaur hasiko da ludoteka zerbitzu ematen 3 eta 12 urte artekoek

Aurreko astelehenetik eguenera bitartean zabalik izan zituen ateak Algara ludotekak, ume zein gurasoek elkarrekin ezagut zezaten jolas txokoa.

Gaurtik aurrera, berriz, umeak izango dira jaun eta jabe. Herriko ikastetxeetako 3 eta 12 urte arteko ume guztiak eraman dituzte etxera ludotekako bazkide izateko txartelak. Hala, gaurtik aurrera, bazkide egiteko eta ludotekaren jolas egiteko aukera izango dute. Gainera, urtarrila bitarteko kuota ordaindu beharko dute, oraingoz, gurasoek; eta ez urte osokoa. Adin bakoitzak bere ordutegia izango du; hortaz, jakin gura duenak ludotekaren galdetu besterik ez dauka.

BERGARA | IZENA EMAN BEHARKO DA

### Xipizaro ludoteka berriak 40 umerendako lekua izango du

Xipizaro ludotekak Agorrosinen izango du egoitza berria. Plaza mugatuak izango ditu, eta bi begirale. Plazak zozketatu egingo dituzte umeen artean. Ludoteka berriak umeendako jolasak eta ipuinak izango ditu eta astelehenetik zapatara egongo da zabalik, 17:00etatik 20:00etara. Astelehen eta eguaztenetan, 3tik 7 urte bitarteko umeendako izango da zerbitzua; martitzen eta eguenera, 7tik 12ra bitartekoendako eta egubakoitzetan eta zapatuetan, 3tik 9ra artekoendako.

Urriaren 9an zabalduko dute Xipizaro ludotekaren egoitza berria. hara joaten izena eman behar da eta epea zabalik dago gaurtik aurrera: 10:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Izena emango duten umeek fitxa bete beharko dute.

ANTZUOLA | NAFARROARA IRTEERA ERE EGINGO DUTE

### Erretiratuek hitzaldi batekin irekiko dute bihar Kultura Astea

Bihar hasi eta hilaren 8ra arte Kultura Astea egingo dute Antzuolako erretiratuek. Pertsonen arteko komunikazioaren gaineko hitzaldiak irekiko du astea. 18:00etatik aurrera izango da hori, Olanaren etxean. Eibarko Adindu elkarteak egingo du hitzaldia eta Gainerako pertsonekin komunikatzen ikastea izenburua dauka.

Egunean, hilaren 5ean, izango dute bigarren hitzordua erretiratuek. Egun horretan ONCEko antzerki taldeak emanaldia egingo du: *Terapia de grupo* antzezlanaren aurkeztuko du 18:00etan, Olanaren. Iratxe eta Gares era bisitarekin itxiko dute astea.

DEBAGOIENA | ERRONKEN BERRI EMANGO DUTE

### Leintz Eskola Kirolak ikasturte berria aurkeztuko du bihar

Leintz Eskola Kirolaren ikasturteari hasiera emateko, ibar horretako eskola kirola osatzen duten udal eta ikastetxeetako ordezkariak eskola kirola ahalbidetzen duen hitzarmena sinatuko dute bihar Arrasateko udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Horrekin batera, 2005-2006 ikasturtearen memoriaren aurkezpen laburra egingo dute eta baita ikasturte berrirako erronken berri eman ere. Ekitaldian izango dira Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaeta, Aramaio eta Arrasateko udal ordezkariak eta Luis Ezeiza, Kurtzabarri eta San Martin herri eskolak eta Arizmendi ikastola, Mesedeetako Andra Mari ikastetxea eta Arrasate BH institutua.

## Hitzorduak



ARETXABALETAKO ALGARA LUDOTEKAN BAZKIDE EGITEKO AUKERA DAGO |

Gaurtik, astelehena, dago zabalik ludoteka 3-12 urte bitartekoendako

Aretxabaletako Algara ludotekak ateak zabalduko ditu gaur, astelehena, eta gura duenak bazkide egiteko aukera du gaurtik aurrera. 3 urtetik 12ra bitarteko umeek dago zuzenduta. Umeek eta gurasoek ludoteka hobeto ezagutzeko, ate irekien jardunaldiak egin dituzte joan den astean.

Erabiltzeko ordutegiak, astelehenetik egubakoitzera bitartean, desberdinak izango dira adinaren eta ikastetxeko mailaren arabera, eta horien berri emango dute ere ludotekaren. Umeek, eta aita-amek ere, batera jolasteko eta ekintzak egiteko aukera izango dute Algara ludotekaren.

ANTZUOLA |

#### • Patata tortilla lehiaketan izena emateko aukera dago

Urriaren 7an, zapatua, patata tortilla lehiaketa jokatu dute gaztetxoek: LHko 5. eta 6. mailakoendako eta DBHko 1. eta 2. mailakoendako da. Izene-matea hilaren 4an bukatzen da, udaletxean.

#### • Hitzaldia eta irteera herriko erretiratuendako

Bihar, martitzena, pertsonen arteko harremanak hobetzeko argibideak emango dituzte. Olanaren etxean izango da, 18:00etan. Bestetik, Iratxera eta Garesera irteera egingo dute egubakoitzean, hilak 6.

ARRASATE |

#### • Yoga eskolak Sanatana Dharmak eskolan

Yoga eskolak emango ditu Sanatana Dharmak urriaren 2tik aurrera. Argibideak: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

#### • Alfabetatze eta hitano ikastaroak euskaltegian

Euskal alfabetatze ikastaroa eta hitano ikastaroa antolatuta ditu Udal Euskaltegiak. Argibide gehiagorako, deitu 943 79 70 77 telefonora edo bidali mezua [euskaltegi@arrasate-mondragon.net](mailto:euskaltegi@arrasate-mondragon.net) helbidera.

• **Amets gorrien taupadak erakusketaren aurkezpena**  
*Amets gorrien taupadak* ize-

neko erakusketa inauguratu dute gaur, astelehena, Monterronen. Rafael Zeziaga Argentinan errefuxiatutako arrasatearrak eta Intxorta Kultur Taldeak antolatu dute, eta Urriko Iraultzak Debagoienera izan zuen eragina azaltzen du. Hilaren 15era arte izango da ikusteko aukera.

#### • 1943. urtean jaiotako emakumeen batzarra

Urriaren 7an ospakizuna egingo dute Hilario jaietxean. Parte hartzeko, 20 euro ordaindu behar dira Muruamendiaraz gozotegian.

BERGARA |

#### • Bi ikastaro antolatu berri ditu Udal Kultura Sailak

Sendabelarrak ezagutzeko eta altzariak zaharberitzeko ikastaroak antolatu dituzte, urrian hasteko. Izene-matea zabalik dago kultura etxean.

#### • San Pedroko parrokiaren, katekesi hasiera

San Pedroko katekesia urriaren 2an (2. eta 6. mailakoendako), 3an (4. mailakoendako) eta 4an (3. eta 5. mailakoendako) hasiko da.

#### • Bat-bateko mezularitzaren gaineko ikastaroa

Interneteko bat-bateko mezularitzaren gainean irakatsiko dute hilaren 4an eta 5ean KZgunean, 11:00etatik 13:00etara bitartean.

#### • Bertako euskara eta etorkinendako euskara

Bertako euskara lantzeko ikastaroak antolatu dituzte Bergarako Udal Euskara batzordeak eta Udal Euskaltegiak, Gehixago eta Hobeto programaren barruan. Urriaren 5a da izena emateko azken eguna. Bestalde, eskolaz kanpoko euskara eskolak ere antolatu dituzte Udalak eta Jardunek, 16 urte bitarteko etorkinendako. Argibideak: 943 76 36 61.

#### • Herri batzarra egingo dute urriaren 4an, eguaztena

Herri batzarra deitu dute hilaren 4rako, eguaztena, Elementalean, 19:00etan. Egoera politikoaren irakurketa, 2006-2007rako plangintza eta hauteskundeak landuko dituzte.

DEBAGOIENA |

#### • Aisialdi begirale eta zuzendari titulua ateratzeko

Titulu hori ateratzeko ikastaroa antolatu dute Debagoienerako euskara elkarteek. Argibideetarako: 943 79 54 46 eta 943 76 08 19.

ONĀTI |

#### • Interneteko bi ikastaro emango dituzte KZgunean

Honako ikastaroak emango dituzte bihar, martitzena: egunkaria Internetez irakurtzekoa (11:00-12:00) eta postal bat bidaltzekoa (12:00-13:00).



# Iritziak



## Isilpekoak

943 25 05 02  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

### • INEMen erdaraz

Arrasateko INEMeko bulegoetan euskaraz inork ez egitea salatzen du irakurle batek. Jasotako tratuaekin "haserre" dagoela adierazten du irakurleak. Hark azaldutakoaren arabera, "ez telefonoz zein bertara joanda ere, bertako langile batek ere ez daki euskaraz, eta lotsagarria da", dio irakurleak, egoerarekin sututa. "Euskaldunak baztertzeko gaituzten beste leku bat gehiago da bulegoa eta lotsagarria da bertako langile batek ere euskaraz ez jakitea, eta normalizaziorako atzerapauso itzela da diskriminazio hau". Amaitzeko, gehitzen du egoera horien aurrean komenigarria izango litzatekeela neurriak hartzea, baina inork ez duela ezer egiten.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

## Sarean harrapatuta

### Euskarazko zinema industria osasuntsu dago?

Iazko Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten *Aupa Etxebeste!* filma, euskarazko zinemagintzan aspaldian egon den lehorte-ari amaiera emanez-edo. Aurten, beste euskarazko film bat aurkeztu dute Zine-

maldian: *Kutsidazu bidea, Ixabel*. Hala, urte askoan geldirik egon ondoren, euskarazko bi film aurkeztu dituzte bi urtean. Euskarazko zinema industriak hobera egin du? Horixe galdetu dute *Goiena.net*-en.

#### GAZTEEK EMANGO DITUZTE FRUITUAK

Azken bi urteotan euskarazko bi film aurkeztu dituzte eta oso harrera ona eduki dute jendearen artean. Beste film batzuk ere prestatzen ari dira eta badirudi jendea hasi dela mugitzen; gazte asko ari dira zinemagintza munduan eta horrek emango ditu fruituak. Uste dut pixkanaka joango dela hazten euskarazko industria ere.

Jon / www.goiena.net

#### POZGARRIA DA HEMENGO ZINEMAGILEEN LANA

Benetan pozgarria da euskal zuzendari eta zinemagileek egiten duten lana. Euskararen presentzia nabarmendu dute eta ez Donostiako Zinemaldian bakarrik. Iaz *Aupa Etxebeste!* filmak izandako harrera ezin hobea izan zen. Aurten berriz Mireia Gabilondoren *Kutsidazu bidea, Ixabel* eta Jose Maria Gonzalez Gonzarren *Txorixak galduta egozian* filmak ere arrakasta handia izan dute. Zorionak denoi eta segi horrela lan egiten!

Miren / www.goiena.net

#### OSO GUTXI DA HALA ERE; ETORRIKO DA LEHORTEA

Uste dut ez duela hobera egin. Filmak ekoizteko lanak luze jotzen du, baina bi urtetan bi film baka-

rrik aurkeztea oso gutxi dela uste dut. Etorriko da berriz ere lehor-tea!

Ander / www.goiena.net

#### KANPORA JOATEN DIRA FILMAK EGITERA

Ados nago Anderrekin. Bi urtean bi film, besteren bat ere egiten dabilta... baina ez nioke horri nik industria deituko. Uste dut euskarazko filmak egitea nahiko kasu isolatua dela. Diru gutxi dago hemen eta Madril aldean dago gehiena. Han baliabide

gehiago dute eta hara joaten dira asko filmak egitera.

Hala ere, ahal dutenek segi dezatela filmak euskaraz egiten!

Maider / www.goiena.net

#### ERAKUNDEEK LAGUNDU BEHARKO LUKETE

Egia da diru gutxi dagoela hemen filmak egiteko eta, gainera, erakundearen aldetik ere ez dute laguntza handirik jasotzen. Ez diot diruagatik bakarrik. Ona izango litzateke benetako euskal zinema industria bat sortzeko pausoak ematea: zine-eskola indartsu bat sortu, bitartekoak jarri... Errentagarritasunari begiratu baino hobe lukete benetan kulturaren eta zinemaren aldeko zerbait egin.

Gari / www.goiena.net

#### EUSKARAK EZ DU NORMALTASUN OSOA

Benetako zinema industria sortzeko pausoak ematea ondo dago. Baina, zoritxarrez, bizi garen lekuan eta gizartean bizi gara eta hemen oraindik euskarak ez du normaltasun osoa. Horrek eragina dauka euskarazko zinemaren ere; zenbat eta euskarazko hiztun gutxiago, orduan eta euskarazko film gehiago. Ohitu gaituzten euskaraz filmak ikusten normalizazioaren alde.

Maite / www.goiena.net

## www.goiena.net

Euskarazko zinema  
industria osasuntsu  
dagoela uste duzu?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo  
www.goiena.net webgunera

## Halaxe erantzun digute

Gerta litekeen sektore elektrikoko kontzentrazioak zer eragin du kontsumitzaile arruntarengan



**RAFAEL KORTABARRÍA** |  
BURTSAN ADITUA

Berez, balizko bategite batek ez lioke kontsumitzaileari tarifetan zuzenean eragingo, prezioak Gobernuak erregulatzen ditu-eta. Ez da merkatu librea. Mugimendu hau gehiago izan da Europan Espainiako txapeldun bat izateko, joera herrialde bakoitzak berea izatea da-eta.



**CELINA MENAZA** |  
GIP. KONTSUMITZAILEEN ELK.

Kontzentrazio handiko egoerak inoiz ez dira kontsumitzailearentzat onuragarriak izaten, baina badirudi oraingo honetan erabaki komertziala besterik ez dela. Eragitekotan zerbitzuaren kalitatean eragingo luke, prezioa eta tarifak Gobernuak erregulatzen dituelako.



**MIKEL USANDIZAGA** |  
HUHEZI-KO IRAKASLEA

Konpainiak zenbat eta gehiago kontzentratu, kontsumitzailea orduan eta txikiagoa eta ahulagoa da haien aurrean. Jakina da enprezentzat gero eta gutxiago garelako pertsonak eta gehiago kontsumitzaile hutsak, eta Europa elkarte ekonomikoa da, ez herrien elkar-tea. Hortik atera kontuak.



**URKO LOPEZ** |  
ETEO-KO IRAKASLEA

Nabaria da aspalditik konpainia elektrikoetan dagoen kontzentrazioa, sektore estrategikoa da. Finantza mundua asko mugiarazi du horrek azken egunotan. Goiz da auresateko noren esku gertuko diren, batez ere Endesa, edo orokorrean kontsumitzaileen-engan izango duen eragina.



## Egunkarietako harribitxiak

### HIZTUNEN ONDOEZA

Euskaraz egiteko eskatzeagatik polizia etxean bukatu zuen batek, epaitegian besteak, kartzela zigorra jaso zuen hurrenak. Euskara ofiziala den tokietan. Ez da fikzioa, euskaldunentzako errealitate gordina baizik. Halaxe zioen atzo *Berria*-k, eta hiru lagun horien testigantzak jaso zituen. Euskaraz egin nahi eta ezin.

'Berria'  
2006-10-01



### GROENLANDIA, TSUNAMIA KAMERA GELDOAN

Badirudi Helheim glaziarra ez dela mugitzen. Izotzak bost kilometroko erreka sortu du, Groenlandiako bigarren glaziarrik handiena da, milaka urte ditu eta begiratu gero geldi dagoela dirudi. Baina ez da horrela, mugitu egiten da. Adituen esanetan, duela 40 urte baino hiru aldiz azkarrago mugitzen da, urtean sei kilometro egiten ditu aurrera. Bestalde, itsasora,

urtero, 12 kilometro kubiko ur isurtzen ditu -Ebro ibaia 12 aldiz hustuko balitz bezala-. Groenlandia urtzen hasi da, eta, adituen esanetan, oso kezagarria da hori: izotzutako masa guztia urtuko balitz, itsasoaren maila 7,3 metro igoko litzateke. Adituek esaten dutenez, Groenlandia tsunamia da, kamera geldoan.

'El País'  
2006-10-01



## Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2006-X-01

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'El Diario Vasco'

ZINEMALDIAREN AURRERAPENA

Izualdi handirik gabe jarraitzeko aukera ematen dion eredu oinarritzen da Donostiako Zinemaldia. Dena den, arduradunek oso kontziente izan behar dute horrek ez dela bermatzen jaialdiaren jarraipena. Nazio-arteko panorama oso azkar ari da aldatzen eta horrek behartu egiten du Zinemaldiaren etorkizuneko eredu haustartzeraz.

Editoriala  
2006-10-01

### 'Noticias de Gipuzkoa'

BIDEGURUTZEA ZINEMALDIARENDAKO

Sei milioi euroko aurrekontuarekin eta diru publikoaz gain duen laguntza txikiarekin, Zinemaldia derrigortuta dago *glamour* handirik gabeko formatura. Baina hori ere zinemaren unibertsoaren parte da eta ikusleek eta hainbat marka komertzialek eskatzen dutena. Finantzaketa da Zinemaldia bidegurutze horretara eroan duena.

Editoriala  
2006-10-01

### 'Gara'

ELKARRIZKETA

"54 urte ari gara Donostian Zinemaldia egiten. Gorabehera handiak izan ditugu historian; era guztietako egoera politiko, sozial eta ekonomikoak bizi izan ditugu. A kategoria galdu eta berreskuratu egin genuen. Egoera horiek guztiak gaintitzea lortu dugu eta ez dut uste zinemaldi berri bat antolatu dutelako gu kikilduko garenik".

Mikel Olaziregi  
2006-10-01


### 'El Mundo'

BALANTZE ONA, IZAR HANDIRIK EZ

Kidman Erromako zinemaldian egongo da. Hara eroatea milioi bat euro kostako zaie. Gehiegizko gastua da, hain justu, Olaziregiren filosofiarekin bat ez datorrena: "Ez naiz taloitegian oinarritutako zinemaldien aldekoa". Baina faltan sumatu ditugu sail ofizialeko hainbat filmetako protagonistak: Ed Harris, John Travolta, Salma Hayek...

Borja Hermoso  
2006-10-01

## Zorroztalea



## 'eu' domeinua

*Susa literaturatik datorren Josu Landak hasi du hitzaldia. Hasteko, ezkor azalduko dela azaldu du, berak ez baitu euskara Interneten indartsu ikusten. Euskarak internazionalizazioari oso gutxi eskaini diezaiokelakoan dago bera. Ekosistema txiki bat osatzen dugula gaineratzen du, eta ranking-ei begiratzen aritzeak ez digula ezertarako balio.*

'www.mutilmedia.com' |  
2006-09-28

Juan Luis Azkarate

Ostegunean, EH 2.0 izeneko II. jardunaldiak izan ziren Donostian. Ekimen honen xede nagusia Interneten .eu domeinua martxan jarzea da, Katalunian .cat domeinuarekin egin duten modura. Hau xe duzue .cat domeinuaren eginkizuna: "L domini .cat, és un domini genèric com el .com o el .org, però amb accés restringit a la comunitat lingüística i cultural catalana a Internet, per obtenir un .cat caldrà demostrar alguna relació amb la nostra comunitat lingüística i cultural".

Bost hilabetetan 15.000 domeinu .cat lortu dituzte gure bizilagun katalanek. Euren martxa ikusita, .eu domeinuaren aldeko kanpaina honetan ere, berriro ere, euskaldunok ekialdera begiratu behar dugu; katalanena izango baita, jakina, jarraitu beharreko irizpidea.

Sarri aipatzen da Internet estrategikoa dela euskararen etorkizunerako, sareen sareak gizartean hartzen doan eta datozten urteetan hartuko duen indarra kontutan hartuz gero.

Batzuk ezkor azaltzen dira, goian aipatzen den Josu Landa kasu; euskarazko Internet gaur egun zer edo zer bada, lau frankotiradore lan eskergari esker baino ez da. Enpresa garrantzitsuetan, instituzio eta erakundeetan itzulpen lanak eta presentzia testimonialak dira nagusi eta hortik aurrera, ezer gutxi.

Egunen batean .eu abiaraztea lortzen badugu, erabilera asko eman ahal izango diogu domeinu berriari: edukiak eta ideia berriak sortu eta partekatzeko, komunitate edo geografia birtual berria sortzeko edo pegatina gisa, besterik gabe.


**"Bost hilabetetan 15.000 domeinu .cat lortu dituzte katalanek. (...) Berriz, euskaldunok ekialdera begiratu behar dugu"**

**"Egunen batean .eu abiaraztea lortzen badugu, erabilera asko eman ahal izango diogu domeinu berriari"**



# KIROLA

- Ford Mugarri ondo hasi da maila berrian, Portugaleten 24-18 irabazita | 14
- 24. Mikel Deuna pilota txapelketako finalak jokatu ziren zapatuan | 18



**Aitor Arana**  
korrikalari  
aramaioarrarekin  
denboraldia  
aztertu dugu | 16

## PREFERENTE MAILA

### MUTRIKU

# 1-0

### ALOÑA

**Mutriku** | Osa, Ganboa, Azkarate, Aldazabal, Arantzamendi, Landaribar, Zubiaurre (Duarte, 75. min.), Añorga, Arreitunandia, Basurko (Kaltzakorta, 65. min.) eta Lasarte (Gorritibera, 89. min.).

**Aloña Mendi** | Idigoras, Lopez, Losada, Elgarresta, Idigoras, Garai, Bazan (Arregi, 63. min.), Barrena, Astigarraga (Moiua, 63. min.), Olalde, Garmendia (Aramendi, 63. min.).

**Golak:** | 1-0 Jon Andoni Basurko (65. min.).

**Epailea** | Iñaki Benavente jauna. Aloña Mendiko Julen Barrenari txartel horia atara zion.

**Bestelakoak** | Oñatiko San Migel jaiak izan arren, jende dezente hurbildu zen Mutrikura partidua ikustera.

### Bikain

#### Jokalarien jarrera

Jokalariek intentsitate handiarekin jokatu zuten zapatuko partidua. Galtzen joan arren, jarrera ona erakutsi zuten San Migel futbol zelaian Aloña Mendiko jokalariek.

### Kaskar

#### Hiru puntu

Orain arte jokoan izan diren 12 puntuetatik hiru besterik ez ditu eskuratu Aitor Oruetaren taldeak. Gainera, lau partiduetan bi gol bakarrik sartu dituzte eta sei izan dituzte aurka.

### Esandakoak

“Bi taldeetako defentsak nagusi izan dira eta joko aldetik nahiko partidu txarra izan da Mutrikukoa”.

“Golaren ondoren, taldeak erantzun ona izan du; intentsitate osoz jokatu dugu, gol aukera batzuk sortuz, baina ez dugu golik egin”.

**AITOR ORUETA** |  
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA



ARTXIBOA

laz, Oñatin jokaturako partiduan, Mutrikuk sei jokalarirekin amaitu zuen partidua .

### FUTBOLA | AUKERA GUTXIKO PARTIDUA

# Etxetik kanpoko puntuak batzea falta zaio Aloñari

*Aloña Mendik denboraldiko hirugarren partidua galdu zuen zapatuan Mutrikuren aurka; ligari neurria hartzea falta zaie oñatiarrei*

#### Arantzazu Ezkibel

Aukera gutxiko partidua izan zen zapatuan Aloña eta Mutrikuk jokatu zutena. Gol bakarra etxe-koena izan zen. Hala, Aloña esku-hutsik etorri zen San Migel futbol zelaitik.

#### KORNERRETAN ARRISKUA

Aloña Mendik kórner bidez sortu zituen gol aukera garbienak. Lehenengo zati amaieran, lau kórner jarraian izan zituzten oñatiarrek, baina baloiak ez zuen

etxeko taldearen atea zulatu eta atsedenera berdinketarekin iritsi ziren, 0-0.

Entseaturako jokaldiez gain, ez zen aukera garbi gehiago ikusi lehenengo zatian.

#### DEFENTSA SENDOA

Bigarren zatian jokoak berdintsu jarraitu zuen. Bi taldeek defentsa sendoa erakutsi zuten eta horrek aurrelarien jokoa ilundu zuen. Jokoa lehiatsua izan zen San Migel futbol zelaian, baina aukera gutxikoa.

Mutrikuren gola bigarren zatiko 20. minutuan iritsi zen. Zelai erditik hasitako jokaldi batean, Jon Andoni Basurko atezainaren aurrean bakarrik geratu zen eta ez zuen hutsik egin.

**Aritz Garmendiak, buruz, langara bota zuen baloia bigarren zatian**

**Datorren astean Urolaren aurka neurtu beharko ditu indarrak Aloñak etxean**

Golaren ondoren, Aloñako jokalariek erantzun ona izan zuten. Intentsitate osoz lehiatu ziren berdinketaren gola lortzeko, baina ezin izan zuten.

Partiduaren jabetza hartu zuten oñatiarrek minutu haietan eta aukera asko sortu zituzten. Denetan garbiena Aritz Garmendiak izan zuen: area barruan burukada eman, baina baloiak langa jo zuen. “Gola egiten saiatu gera behin eta berriz, baina atea zulatu gabe geratu da”, esan zigun Aitor Orueta Aloñako entrenatzaileak.

Aloña sailkapeneko azkenurreko postuan dago, hiru punturekin. Datorren astean Urolaren bisita jasoko du Azkoagainen. Ezinbestekoa izango du Aloñak hiru puntuak eskuratzea, sailkapenean gora egin nahi badu.



PREFERENTE MAILA



ARTIBOA

Lan ona egin zuten Gordobilen mutilek Donostian, eta hiru puntu garrantzitsu batu zituzten.

# Merezimendu osoz lortu zituen Mondrak hiru puntuak

BERIO

1-3

MONDRA

**Berio** | Iñaki, Juan (Badiola, 75. min.), Iñigo, Luis, Josu, Jose Maria (Monreal, 66. min.), I. Saiz, Gorka, Alex, Enrike (Galarra, 72. min.) eta Mikel (Lopetegi, 46. min.).

**Mondra** | I. Ander, Mercader, Illart (Muxi, 58. min.), Markel, Laspiur, Gotzon, Zubikarai, Loiti (Argider, 62. min.), Lopez (Markel, 84. min.), Arkaitz eta Ekain (Aranbarri, 86. min.).

**Golak:** 0-1, Zubikarai (20. min.), 1-1, Lopetegi (penaltiz, 50. min.), 1-2, Ekain (67. min.), 1-3, Muxi.

**Epaila:** Martinez jauna. Partidu lasaia izan zuten.

Jasone Zabala

Partidu nahiko orekatua jokatu zuten arrasatearrek zapatuan Berioaren aurka. Joan zen astean Idiazabalen aurka etxean galdu eta gero, puntuak lortzea zen garrantzitsua.

Lehen zatia orekatua joan zen, baina gol aukera gehiago Berioek izan zituen, gehiagotan heldu zen Ander atezain arrasateararen ingurura, baina ez zituen izandako aukerak aprobetxatu.

**GOLA EGIN ETA GERO HOBETO**  
Horrela, 20. minutuan, Zubikarai sartu zuen arrasatearren lehen gola. Aukera gutxi baina ondo aprobetxatu zituen Igor Gordobilen taldeak. Atsedendira

ezer erabaki gabe heldu ziren bi taldeak, nahiz eta Mondra aurretik joan markagailuan. Bigarren zatian, berriz, Mondra taldea zelaian hobeto kokatu zen. Hala eta guztiz ere, Berioek berdinketaren gola lortu zuen penaltiz. Eta arrasatearrek gora jo zuten garaipenaren bila. Horrela, 67. minutuan, Ekainek markagailuko berdinketa apurtu eta bigarren gola egin zuen; Berio bere jokoa egin ezinik zebilen eta minutuak aurrera joan ahala Mondra erosoago sentitu zen zelaian ganean, eta, hala, 80. minutuan, hirugarren gola egin zuen: gole-gilea Muxi izan zen. Emaitzari begiratuta bi goleko errenta handia dirudien arren, merezimenduz lortu zituzten hiru puntuak.

# Atea hutsean, eta puntu bat Idiazabaldik UDAk

IDIAZABAL

0-0

UDA

katua izan zen, baina aukerak UDAk sortu zituen, eta haietako batean, baloia langara joan zen.

**IRABAZTEKO AUKERA**

Bigarren zatian ere inork ez zuen agindu zelai ganean, nahiz eta partidua amaitzeko bost minutu falta zirela, garaipenaren gola sartzeko beste aukera bat izan zuten Recioeren mutilek, baina ez zuten Idiazabalgoren atea zula-terik lortu.

Bada, laugarren jardunaldia jokatu ondoren, eta nahiz eta itxura ona eman, azken postuan jarraituko dute UDAkoek.

Asteleheneko Goienkaria

Denboraldiko lehen puntua lortu zuen zapatuan UDAk Idiazabalen, eta garrantzitsuena izan zen ez zutela golik jaso. Zelaian ondo kokatuta jokatu zuten Recioeren mutilek. Lehen zatia pare-

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK

Hernani-Hondarribia	1-1
Pasaia-Ordizia	1-1
Martutene-Aurrera	3-4
Urola-Zestoa	1-2
Mutriku-Aloña Mendi	1-0
Touring-Zarautz	0-2
Anaitasuna-Trintxerpe	2-2
Berio-Mondra	1-3
Idiazabal-UDA	0-0

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1.Ordizia	10	4	3	0	1	7	3
2.Zarautz	09	4	3	1	0	7	4
3.Anaitasuna	08	4	2	0	2	8	4
4.Hernani	07	4	2	1	1	8	4
5.Idiazabal	07	4	2	1	1	2	2
6.Zestoa	07	4	2	1	1	5	6
7.Aurrera	06	4	1	0	3	7	6
8.Mondra	06	4	2	2	0	4	4
9.Hondarribi	05	4	1	1	2	3	3
10.Pasaia	05	4	1	1	2	2	4
11.Trinxerpe	05	4	1	1	2	5	4
12.Touring	04	4	1	2	1	5	5
13.Berio	04	4	1	2	1	6	7
14.Urola	04	4	1	2	1	3	4
15.Mutriku	04	4	1	2	1	3	5
16.Martutene	03	4	1	3	0	7	9
17.Aloña Mendi	03	4	1	3	0	2	6
18.UDA	01	4	0	3	1	1	5

HURRENGOAK

UDA-Hondarribia
Ordizia-Hernani
Aurrera-Pasaia
Zestoa-Martutene
Aloña Mendi-Urola
Zarautz-Mutriku
Trinxerpe-Touring
Mondra-Anaitasuna
Idiazabal-Berio

2. erregionala

# Lehia gogorra eta jokorik ez Estala futbol zelaian

ANTZUOLA

1-1

SORALUZE

banaketarekin konformatu behar izan zuten.

**ZELAI ERDIKO NEURKETA**

Bi taldeak atzealdean ondo kokatuta zelairatu ziren. Defentsa gogorra erakutsi zuten eta aurrelariak ez zuten zulorik aurkitu gola egiteko.

Zelai erdiko neurketa izan zen zapatukoa. Baloia zelai erdian mugitu zuten alde batetik bestera, baina baloiaren kontrola ez zuen talde jakin batek izan.

Atsedenera husnako berdinketarekin joango zirela ematen zuten, baina Soraluze sortutako

aukera argi batean, etxeko taldeak gola jaso zuen.

**BI AUKERA GARBI**

Aldagelatik bueltan, Antzuolak erreazionatu egin zuen eta markagailua lehia gai izan zen. Hala, bigarren zatiko 20. minutuan, Jon Gurutz Godoik berdinketaren gola egin zuen.

Joko handirik ez izan arren partiduak bi aukera garbi izan zituen eta biak gol bilakatu ziren.

Berdinketa horrekin, Antzuolak zazpi puntu ditu sailkapenean. Jokotutako hiru partiduetan bederatzita gol egin ditu eta bi jaso.

2. erregionala



JOSETXO ARANTZABAL

MONDRAK HIRU GOL EGIN ZITUEN LEHEN PARTIDUAN

Ederki hasi du denboraldia Mondrak: Urki taldeari 3-0 irabazi zion. Etxekoak partiduaren jaun eta jabe izan ziren; horrela lehen zatian etxekoek bi golak etorri ziren Urkiko defentsako hutsengatik. Bigarren zatian ere, Urki ezinean ibili zen eta etxekoek hirugarrena Aitor Lezamizek egin zuen, falta jaurtiketa eder bati esker.

Arantzazu Ezkibel

Antzuolako Estala futbol zelaian ez zen partidua ona ikusi zapatu arratsaldean. Intentsitate handiko norgehiagoka izan zen Antzuolako eta Soraluze mutilen artekoa eta azkenean puntu



• 2. MAILA NAZIONALA

# Denboraldiko lehen partiduan, landutako garaipena Arrasatek

*Arrasatek partidu serio eta txukuna jokatu zuen hasieratik, eta irabazi egin zien bizkaitarrei*

ARRASATE

24-18

PORTUGALETE

**Arrasate** | Egaña, Valle, J. Esquibel (1), A. Esquibel (1), E. Garcia, Olabarria, Masip (3), A. Garcia, Bernal (1), Calleja (10), Isasmendi (3) eta Otegi (5).

**Portugalete** | Rivera, A. Fonseca (1), I. Fonseca (1), Ramila (8), Cenicalaya (1), Roman, Gomez, Esteban (2), Andres, Natividad (1), Azkue (2) eta Jayo (2).

**Golak bost minuturo:** 2-1, 4-1, 6-2, 8-5, 10-6, 12-7, 14-9, 15-10, 17-11, 19-14, 20-15 eta 24-18.

Jasone Zabala

Merezimendu osoz irabazi zuten Beñardo Balerdi eta Fertxu Rodriguezen mutilek zapatuan. Taldea mailaz igo da aurten, eta inork ez zekien nola erantzungo zuten.

Lehen zatian, hasieratik intentsitatearekin atera ziren

arrasatearrak, gogo handiarekin, bai erasoan eta baita defentsan ere. Bizkaitarrak partiduan sartu gabe atera ziren. Eta etxekoek egoera hori aprobetxatu zuten markagailuan aurretik ipintzeko. Kanpotarrak urduri zebiltzan eta 8. minuturako bi txartel hori atera zizkien epai-leak.

Jokoa nahasten hasi zen, eta bi taldeek ezin zuten joko onik erakutsi. Arrasatearrek defentsa ona egiten zuten, baina gero, erasora jotzeko orduan, zailtasunak izaten hasi ziren. Portugaleteko entrenatzaileak 18. minutuan atsedenaldira eskatu zuten, eta horrek bere mutilak berpiztu zituen; hala, markagailuko aldea murrizten hasi ziren. Arrasatearrek minutu zoro batzuk izan zituzten, baina berriz ere markagailuan aldea lortu zuten: 27. minutuan bost goleko errenta zuten etxekoek, eta atsedenaldira 12-7 joan ziren.

## ERREAKZIOAREN BILA

Bigarren zatian bizkaitarrak partiduen bila atera ziren hasieratik, baina etxekoek ederki kontrolatu zuten egoera. Portugaleteren gol behar horrek partiduen intentsitatea handitu zuen kanpotarren alde, eta etxekoak lokartu egin ziren momentu batez.

Etxekoei jokoa egitea kostatzen zitzairen eta Portugalete erosoago sentitzen zen, baina markagailuan zuten desabantaila jai-



JOSETXO ARANTZABAL

Erasoan eta defentsan intentsitate handia erakutsi zuten etxekoek, eta horrek min handia egin zien bizkaitarrei.

tsi ezinik zebiltzala ikusirik, 18. minutuan defentsa misto bikoitza egiten hasi ziren. Defentsa mota horrek bere eragina izan zuen, baina ez zuen luzaroan iraun eta kanpokoak nekea sumatzen hasi ziren. Kanpotarren nahi eta ezina bihurtu zen partidua,

ezin zuten asmatu etxekoek defentsa apurtzen, eta partidua amaitzeko bost minuturen faltan, garaipena esku-eskura jarri zitzairen etxekoei, bizkaitarrek amore eman zutelako ordurako.

Azkenean, sei goleko errentarekin irabazi zuten etxekoek,

eta harmailetan bildutako jarraitzaileen animuekin batera denboraldiko lehen garaipena lortu zuten, garaipen garrantzitsua.

Aipatzekoak dira, talde guztia ederki aritu bazen ere, Calleja jokalaria sartutako hamar golak, ikuskizun bikaina eskaini zuten.

• AURRE-DENBORALDIA

## Azkar jokatuta irabazi zuten

BERGARA

37-24

LEITZARAN

Arantzazu Ezkibel

Aurre-denboraldiko azkeneko norgehiagokan garaipena eskuratu zuten Josetxo Muniategiren mutilek. Andoaingo Leitza- ran taldearen aurka izan zen, Labegarrietako kiroldegian. Bergararrek partidu ona jokatu zuten, erasoan baloia azkar mugituta. Hala, 37 gol egin zituzten.

Partidu hasiera nahiko berdindua izan zen. Baina minutuak pasa ahala etxeko taldeak nagusitasuna hartu zuen. 10. minututik aurrera, markagailuko aldea handitzen hasi zen eta denbora laburrean 6-2ko partziala izan zuten alde etxekoek. Atsedenera 22-13 aurretik iritsi zen Bergara.

## DENBORALDI BERRIA

Datorren astean hasiko du Bergarak denboraldia, etxean, Urnie- takoen aurka. Lehenengo terri- torialean hamar talde arituko dira eta Bergara aginduko duen taldea izango da. Joan den denboraldiko mailari eutsi nahi dio- te Josetxo Muniategiren mutilek.



JOSETXO ARANTZABAL

Erasoan ondo aritu ziren Bergararrak. Irudian, Plazaola jaurtiketa egiteko gertu.



• LEHEN MAILA

# Epaileak gaizki, eta ezin partidua irabazi

*Azken unera arte izan zuten norgehiagoka irabazteko aukera*

URDANETA

81-76

MUGARRI ALKESA

Asteleheneko Goienkaria

Denboraldiko lehen partiduan ezin izan zuten ezer onik ekarri Bilbo aldetik Gorka Zurututzaren mutilek, eta epaileek egin-

dako lanak zerikusi handia izan zuten lehen porrot horretan.

Lehen zatian agintzen hasi ziren arrasatearrak. Defentsan ondo zebiltzan eta etxeok ezin zuten Zurututzaren mutilen eraso gelditu. Debagoienekoek bederatzi hiruko jaurtiketa sartu zituzten lehen zatian eta 14 puntuko aldea hartu zuten.

Bigarren laurdenean gauzak antzera joan ziren, baina Arrasatekoek ez zuten partidua apurterik lortu, baloiak galtzen hasi ziren eta etxeok partiduan sartu ziren. Atsedendian, 14 puntuko errenta sei puntura jaitsi zuten Urdaneta taldekoek.

**EPAILEEN LAN TXARRA**

Bigarren zatia parekatua hasi zen, eta handik aurrera epaileen lana txarra izan zen. Zurututza-



Epaileen lana erabakigarria izan zen partidu osoan.

ren mutilak askoz gehiago ziren barruko jokoan, baina epaileek eurek bakarrik ikusten zituzten faltak adierazten hasi ziren arrasatearren aurka, eta horren ondorioz, partidua amaitzeko 15 minuturen falta zirela, Alartzia joko

antolatzailea kanporatua izan zen bost faltarekin. Orduan apurtu zen partidua guztiz, eta nahiz eta azken unera arte aukerak izan zituzten arrasatearrek, esku-hutsik bueltatu behar izan zuten denboraldiko lehen partidutik.

• KADETEAK

## Nagusitasunez gailendu ziren Eskoriatzako neskek

ATCO. SN SN AXULAR

27-64

ESKORIATZA

Asteleheneko Goienkaria

Eskoriatzako neskek ezin hobeto hasi dute aurtengo denboraldia. Zapatuan, Donostiako Axular taldearen aurka garaipen zabala eskuratu zuten (27-64). Ligan jokaturako bi partidua nagusitasun osoz irabazi dituzte Eskoriatzakoek. Izan ere, joan zen astean, etxean, 56-16 irabazi zioten Donostiako Salletarrak taldeari.

**HASIERA GOGORRA**

Eskoriatzako neskek gogor hasi ziren eta markagailuan abantaila handitoxa lortu zuten lehenengo zatian. Axularren aurka jaun eta jabe izan ziren eta lortutako aldeari eutsi besterik ez zioten egin. Datorren astean atsedena izango du Eskoriatzak.

**Etorri SUPER AMARAra zure bizikletaren bila !**  
**20 BIZIKLETEN zozketan parte hartu ezazu !**  
**20 euroko erosketarengaitik, zozketarako txartel bat opari**  
**2006ko Azaroaren 4ean izango den zozketan parte hartzeko**

Bizikleta GENOX  
GX-2 Motakoa

Aluminiozko koadro errefortzaturik  
gidagailua barne

Suspentzio urkila A - HEAD

Transmisioa SHIMANO  
21 abiadura mota

Aldaketak - balaztak  
SHIMANO EF - 29

Garaiera bikoitzeko gidoina

Aluminio balaztak V - BRAKE

Ciclos i - 2 acobis-en garantiarekin

**SUPER  
AMARA  
BERGARA**

San Lorenzo Poligonoa  
Amillaga kalea, 18

**ZOZKETA  
20  
BIZIKLETA**



# Iruditlan



**Herri kirolak Aretxabaletako San Migel jaietan.** Bihurri, Arbizu, Maika Aristegi eta Mainer Berra aizkolariak eta Ostolaza eta Goenatxo harri-jasotzaileak aritu ziren atzo herriko plazan. Jon Goenatxok 50 kiloko harria jaso zuen eta neskek, aizkoran, desafioa egin zuten.

JOSETXO ARANTZABAL



**Plater tiroketa.** Aramaioko Kurtzeta Gain elkarteak denboraldiko azken tirada egin zuen zapatuan. 26 tiratzaile elkartu ziren, eta irabazlea Rafael Axpe izan zen. Axpek 24 plater jo zituen.

JOSETXO ARANTZABAL



**Arku tiroketa.** Atzo arku tiroketa erakustaldia izan zen Oñatin, plazako frontoian. Herriko Txantxiku Arku Taldea arduratu zen ekitaldia antolatzeaz. Nahi zuen guztiak arku hartu eta geziak jaurtitzeko aukera izan zuen. Frontoira hurbildutako lagunek trebetasun bikaina dutela erakutsi zuten.

JOSETXO ARANTZABAL





*Eskerrik asko, aita, ama, aitaita, amama eta  
San Migeletan gure ortuko postuan  
porruak, zerbak, kipulak  
erosi zenituzten aretxabaletar guztioi*

Kurtzebarri eskolako ikasle eta irakasleak

# ATERA IEZAIIOZU ETEKIN OSOFA GURE MODARI



[www.el-boulevard.com](http://www.el-boulevard.com)

Trilogia





Pilota

• 23. MIKEL DEUNA TXAPELKETA



ARANTZAZU EZKIBEL

Finaleko zortzi pilotariek Aloña Mendiko arduradunen eskutik jaso zituzten sariak.

# Oñatiko finalak gogorak eta luzeak izan ziren

*Gazte mailan Mendizabal eta Olalde eta nagusietan Gonzalez eta Ajuria nagusitu ziren*

Arantzazu Ezkibel

Mikel Deuna txapelketako final nagusiak luze joan ziren. Nagusi mailakoa pilotakada askoko partidua izan zen. Gonzalez eta Ajuria bizkaitarrak 22-13 nagusitu ziren Bergarako Muguruza eta Gutierrez bikotearen aurka. Gazte mailan, Antzuolako Mendizabal eta Mallabiko Olalde 22-16 nagusitu ziren Idoate nafarraren eta Agiriano esko-riatzarraren aurka.

**GAZTE MAILAKOAK, ONDO** Jokatu ziren bi partiduetatik gazte mailakoa izan zen politena. Bi bikoteak txapela irabazteko gogoz kantxaratu ziren. Bai aurrelariak eta bai atzelariak joko polita egin zuten.

• BIKOTE IRABAZLEAK



GONZALEZ ETA AJURIA |

Bikote bizkaitarra pozik zegoen zapatuan Oñatin lortutako txapelarekin: "Partidua zaila izan da, baina txapela lortu dugu eta pozik gaude", esan ziguten.

Azkenean, Mendizabal eta Olalde bikote gorriak irabazi zuten garaikurra.

Nagusien partidua, berriz, luzeago jo zuen. Pilotak ez ziren onak izan eta pilotariek gutxi arriskatu zuten. Bergarako bikotea partidua guztian atzetik joan zen, eta ezin izan zuten txapela jantzi Oñatiko frontoian.



MENDIZABAL ETA OLALDE |

Antzuolako eta Mallabiko pilotariak harro zeuden: "Aurkari gogorak izan ditugu eta partidua polita izan da. Irabaztea beti da pozgarria", esan ziguten.

IKUSLE GUTXI

Zapatu gauean ikusle gutxi hurbildu zen Zubikoa kiroldegira partidua ikustera. Aloña Mendiko pilota sailekoek esan diguten, azkenaldian jende gutxi joaten omen da partiduetara. Jendea animatu nahi dute herrian antolatzen diren partidua ikustera joan daitezen.

# Aramaiok areto futbol taldea izango du jokoan aurtengo denboraldian

*Denboraldiko lehenengo partidua irabazi egin zuten aramaiorrek*

Arantzazu Ezkibel

Aramaiok Arabako bigarren mailan areto futbol taldea izango du aurtengo denboraldian. Joan zen astean hasi zuten liga aramaiorrek, garaipenarekin.

Azken lau urteetan ez da talderik izan Aramaion. Aurtengo ordea, areto futbol taldea berri-

ro sortzea erabaki du gazte talde batek. Hala, 12 jokalariz osatutako taldea izango da.

200 EUROKO LAGUNTZA

Aramaioko Udalak 200 euroko dirulaguntza ematea onartu du. Datorren urteko urtarrilean jasoko dute Udalak emandako laguntza areto futboleko kideek.

Unai Arantzabal txirrindulari bergararra Italian izan da denboraldiko azken proban parte

hartzen. Azpiroz taldean urte ona burutu ondoren, datorren urtean Bidelan taldean arituko da.



JASONE ZABALA

UNAI ARANTZABAL | TXIRRINDULARIA

# "Oso pozik nago aurten egin dudan lanarekin"

Jasone Zabala

Gipuzkoako selekzioarekin Italian egon zara duela gutxi; nolako izan da esperientzia?

Gipuzkoan selekzio nahiko handia dago, txirrindulari askorekin, eta gu 23 urtez azpikoen taldekoak gara; federazioak hezkuntza plan bat jarraitzen du, ez dira Gipuzkoako txirrindulari onenak joaten bertara, baizik eta denboraldian zehar maila ona erakutsi dutenak, beste lasterketa mota batzuetara ohi-tzeko. Izan ere, Italiako lasterketak eta hemengoak oso ezberdinak dira.

Gipuzkoatik bost joan ginen, horrelako eskaintza bati inoiz ezin zaiolako ezetz esan, eta, nahiz eta denboraldi amaieran nekatuta egon, azkenean asko ikasten duzulako halako esperientzia batetik.

**Zein izan da Italia aldetik ekarri duzun emaitza?**

Iraupen-lasterketa izan zen. Mundiala aurreko asteburuan izan zen, eta mundialera joandako txirrindulari onenek ere bertan parte hartu zuten. Egingandako lanarekin ez naiz oso pozik gelditu, ni ere oso nekatuta joan nintzelako, baina tarteko helmugak irabaztea lortu nuen, nahiz eta lasterketa amaitzerik ez nuen izan.

**Aurtengo denboraldian Azpiru Inmobiliaria taldean aritu zara, eta datorren urtean taldea aldatuko duzu, ezta?**

Joan den urtean TKV taldean egon nintzen. Datorren urteari begira, berriz, eskaintza bat izan dut Bidelan taldetik, eta bertara joango naiz, aukera oso ona delako niretzat. Maila bera dauka, baina egutegi aldetik lasterketa gehiagotan parte hartzeko aukera izango dut, Estatu mailan lasterketa gehiago izango baititut talde berri horrekin, eta hori oso ona izango da txirrindulari bezala hazten joateko.

**Pasa den astean amaitu zenuen denboraldia. Zein da egiten duzun balantzea?**

Balantze oso positiboa egiten dut. Lehenengo eta bigarren mailako txirrindulariak aritu gara, eta maila oso polita eman dugu; nik neuk lasterketa bat irabazi dut eta beste postu on batzuk ere lortu ditut. Datorren urteari begira, berriz, hobetzen joatea izango da nire helburua, baina kontuan hartu behar da txirrindulari on asko dagoela, eta lagundu egin beharko da. Hala ere, aukerak zatea espero dut. **Nola ikusten duzu profesional izateko pausoa?**

Txikitatik hori izan da nire helburua, profesional izatera iristea, eta noski saiatuko naizela. Ikusten dut poliki-poliki gorantz noala, eta aurrera egitea da nire gogoia.

**Ikasketak eta txirrindularitza aldi berean eramatea posible da?**

Gasteizen ikasten nabil, eta txirrindularitzak ordu asko kentzen ditu, ez da erraza. Baina konstantea izanez egin daiteke, eta ondo daramat.

**Txirrindularitzaren inguruan azkenaldian mamu beltzak ari dira bueltaka. Zer deritzozu?**

Betiko kontua da. Beste kirol batzuk ere badaude, baina haiei buruz ez da hitz egiten.

**"Datorren denboraldian Donostiako Bidelan taldean arituko naiz"**

**"Helburua profesional izatera iristea da, eta gogor egingo dut lan hori lortzeko"**



Aitor Arana aramaioarrak laugarren postuan bukatu du mendi lasterketen Euskadiko kopa. Lehenago bizikletan eta mendian ibilitakoa da Aitor, baina mendi

lasterketako probetan aurten hasi da buru-belarri lanean. Kepa Larrea prestatzailearen laguntza izan du Aitorrek. Entrenatzera Aramaioko

mendietara joaten dela esan digu, Orixol ingurura. Eta hura da ibarreko mendietatik gustukoaren duena. Aitorrekin izan gara aurtengo denboraldiari buruz hitz egiten.

AITOR ARANA | KORRIKALARIA

## “Benetan nire gustukoa izateko, mendi lasterketa batek igoera asko izan behar ditu”

Arantzazu Ezkibel

**Laugarren amaitu duzu Euskadiko kopa. Ez da marka txarra lehen urtea izateko, ezta?**

Ni neu gustura geratu naiz egindako lanarekin. Aurtengo denboraldia proba bezala hartu dut, nola moldatzen naizen ikusteko.

Beste urte batzuetan bizikletan ibili izan naiz. Baita oinezko martxetan ere. Baina martxa horiek korrika amaitzen nituezen, korrikako probetara pasatzea erabaki nuen.

**Zein ezaugarri behar ditu zure gustuko lasterketa batek?**

Aldapa asko izan behar ditu. Zenbat eta igoera gehiago izan, orduan eta gusturago aritzen naiz. Azkenean, aldapa gora, korrika baino gehiago oinez aritzen gara; bizkor, baina oinez. Beherakoan egiten dugu korrika. **Euskadiko kopak izan dituen bost probetatik zein izan duzu gustukoaren?**

Azkena, Baigorri jokatu-tako Euskal Endurancea gustatu zait gehien. Luzea izan zen, 67 kilometrokoa, eta inoiz egin gabe neukanez, asko gustatu zitzaidan.

**Datorren urteari begira, Munduko Txapelketako probetan parte hartzeko asmorik baduzu?**

Munduko Txapelketako probetan zure kabuz ibiltzeko diru asko behar duzu, laguntza handien beharra daukazu. Denbora luzeagoa ere eskatzen dute horrelako probek, asteburu osoa libre izan behar duzu, eta nik ez daukat horrenbesteko denborarik. Aurten bigarren alaba izan dut, eta horrek lotu egiten zaitu.

**Horregatik nahiago du inguruko lasterketan parte hartu. Norekin entrenatzen zara?**

Bakarrik joaten naiz mendira. Aurten, prestatzaile batekin aritu naiz, Kepa Larrearekin. Hark jarri dizkit entrenamenduak, baina mendira bakarrik joan naiz. Orixolen, Aramaion, aritzen naiz gora eta behera entrenatzen.

**Mendira joaten zarenean korrika ibiltzen zaren horietakoa zara?**

Bai. Lehen, mendira joaten nintzenean, korrika bukatzen nuen beti. Beraz, esan bezala, korrikako lasterketan parte hartzea erabaki nuen. Orain, mendian korrika entrenatzen aritzen naiz.

**Aurtengo denboraldia amaitu duzu?**

Bai, mendiko lasterketak amaitu ditugu. Egia esan, luze samar ere egin zait.

Orain, neguan, gogorragoa izaten da. Mendian lokatza handia egiten da eta ez da erosoa izaten entrenatzea. Negu partean beste lasterketa batzuetan hartzen dut parte, Behobia eta halako lasterketan. Horiek herrikoia izaten dira.

Nik, gainera, beroa nahiago izaten dut korrika egiteko.

**Aldapa gora edo aldapa behera aritzen zara gusturago?**

Aldapa gora.

**Zein mendi duzu gustukoaren?**

Orixol. Etxetik irten eta Orixolera joaten naiz. Hori da gus-

tukoaren dudak mendia gure ibarreko mendien artean.

**Nola konpontzen zara lana eta kirola uzartzeko?**

Lana, kirola eta familia! Bi alaba ditut, eta azkenean, denbora ahal den lekutik atera behar da.


Denborak kontrolatu egin behar izaten ditut. Familiaren aldetik ere laguntza handia jasotzen dut, bestela ezin izango nuen denean ibili. Baina azkenean, etxeok ere gustura daude egiten dudarekin.

**Sakrifizio handia eskatzen duen kirola da?**

Sakrifizio handia baino gehiago, kirol bortitza dela esango nuke. Denboraldian zehar ez duzu zertan asko entrenatu. Baina kirol bezala gogorra da. Gorputzak asko sufritzen du mendiko lasterketan.

Aurten, egin ditudan lasterketa guztiak kontuan hartuta, sei bihurritu izan ditut. Eskerrak masajista ona dudak.

Kontuan izan urtean hamabi lasterketa ezberdin egin ditudala. Distantzia ezberdinetakoak daude, eta azkena, adibidez, 67 kilometrokoa izan zen.



JOSETXO ARANTZABAL

Aurten sei bihurritu izan dituela esan digu Aitor Aranak.

### Hiru handiak

**Kopan jokatzeko diren lasterketez gain, Aitorrek beste mendi lasterketa batzuetan ere hartu du parte. Hala, ekainean jokatu zen Hiru Handiak lasterketan laugarren postua eskuratu zuen.**

“Urteko probarik politena izaten da Hiru Handiak lasterketa”, azaldu digu Aitorrek. Proba horrek Otxandion du amaiera, eta, helmugan, lagunaren animuak ez ditu faltan izaten.



# Aretz

Plater konbinatuak • Ogitaratekoak • Hanburgesak

Pizzak • Paellak eramateko

Zeliakoentzako ogitaratekoak

Markole 5 • Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA





# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Barikuan jaso zuen Martin Calvok Bergarako film laburren lehiaketako saria | 27
- Arrasateko Literatura Solasaldietan izena eman daiteke hilaren 10era arte | 28

Arrasateko bi gazteren margo eta poesia erakusketa ikugai dago Eskoriatzan | 28

## ZINEMALDIA

DONOSTIAKO ZINEMALDIA | 54. EKITALDIA

# Urrezko Maskor bat beharrean, bi: Iranera eta Frantziara

*Bhaman Ghodabik ('Niwemang') eta Martial Fougeronek ('Mons fils à moi') jaso dute Urrezko Maskorra*

*Epaimahaiaren erabakia ez da kritikaren gustuko izan; film sarituak ez ziren faborito nagusiak*



Bhaman Ghodabik eta Martial Fougeronek jaso zuten Urrezko Maskorra zapatuan, *ex-aequo*.

ARGAZKI PRESS

Edu Mendibil

Donostiako Zinemaldiaren palmaresak polemika esan nahi du. Susmoa daukat Donostiakoa lagunarteko jaialdia bihurtzen ari den: lehen ere sarituak izan diren **Bhaman Ghodabi** eta **Carlos Sorin** zuzendariak izan dira irabazle nagusiak aurrean, *Mons fils à moi* film frantziarrarekin eta **Nathalie Baye** eta **Juan Diego** aktoreekin batera. Ataskatuta balego bezala, berrikuntzaren bat eskatzen du Zinemaldiak eta datak aldatuko ote dituen entzuten hasi da. Hala ere, aukera hori ezeztatu du **Mikel Olaziregi** Zinemaldiko zuzendariak. Edozein modutan, beste jaialdi batzuen aurrean badirudi gurea indarra galtzen ari dela.

Betiko moduan kritika eta epaimahaia ez dira bat etorri aurrean. Epaimahaikideak ez ziren nolanhikoak: **Jeanne Moreau**, **Bruno Barreto**, **Isabel Coixet**, **Sara Driver**, **Bruno Ganz**, **Manuel Gomez Pereira** eta **Jose Saramago** Nobel Sariduna. Ustez gustu zinematografikoa garatua duten gizon eta emakume jantziak. Baina kritikak gogor astindu zuen *Mons fils à moi* filmari eman diote Urrezko Maskorra, *Niwemang*

Nathalie Baye eta Juan Diego aktoreek eraman dituzte zilarrezko maskorrak

filmarekin batera. Ez dakit bi film *ex-aequo* saritzeak Zinemaldiari mesederik egiten dion... Eta 2002an bezala, Carlos Sorin argentinarrak eraman du Epaimahaiaren Saria. Film hobeagoak ekarri dituzte aurrekoetan Ghodabik zein Sorinek: *Las tortugas también vuelan* irandarraren kasuan eta *Historias minimas* eta *Bombon*, *el perro* Sorinek. Argentinarra errepikakorra bihurtzen hasi da, Zinemaldia bezala.

Bhaman Ghodabik ('Las tortugas...') bigarren aldiz irabazi du Urrezko Maskorra

**ZINEMALDIA SERIOA DA TomDiCillok** esana: "Zinemaldietan balio handiagoa ematen zaie negarra eragiten duten filmei barrea eragiten dutenei baino". Eta ez zaio arrazoia falta DiCillori: berak ekarritako *Delirious* komedia Urrezko Maskorra eskuratzeko faboritoen artean zegoen, baina zuzendari onenaren eta gidoi onenaren sariarekin konformatu behar izan da. Logikoa da zuzendari onena eta gidoi onena irabazi duenari sari potoloa ezeztatzea? Kontsolamendu eskasa DiCillorentzat (eta **Steve Buscemi** aktore txiki eta handiarentzat). Badirudi gaur egun ez dela politikoki zuzena komedia bat saritzea, are gutxiago Estatu Batuetatik baldin badator. **Lars Von Trier** zuzendari ospe-

tsuak komedia bat nola egin edeki azaltzen du *The boss of it all* bitxian. Eta bertan esaten da zinemaren helburuetako bat entretenez dela. Diru gutxirekin baina irudimen handiarekin hori posible dela erakusten du zuzendari danimarkarrak. Gauza ona litzateke zenbait zuzendarik Von Trierren lezioa jarraitzea.

Saririk gabe ere geratu da *Forever* dokumental zoragarria. Zinemaldian banatzen diren horrenbeste sarien artean ilogikoa da *Forever* esku hutsik gertatzea. Artearen eternitatearen gaineko hausnarketa bikaina egiten du **Heddy Honigmann**ek, Pariseko Père-Lachaise hilerri famatuan Edith Piaf, Chopin, Proust edo Apollinaireren (eta beste *anónimo* batzuen) hilobiak ikustera doan jendea elkarrizketatuta. Hilerrietan bizitza aurkitzen du Honigmannek. Ez da gutxi.

### HAINBAT PERLA

Izan dira beste perla batzuk ere Zinemaldian: *Babel*, *Cashback*, *The art of crying*, *Paris, je t'aime...*, eta aurrerago, lasaiago ikustea espero dugun beste asko. Eta datorren urtean berriro ere aretoak lepo beteko dira Donostian, eta euskal filmaren bat izango da tartean, eta *glamour* falta salatu dute betikoek, eta polemika piztuko du epaimahaiak, eta **Julian Schanebelen** beste lagunen bati emango diote Donostia Saria. Eta hala izango da beti. *Forever*.



Kutsidazu filmeko estreinaldiak ikusmin handia piztu zuen egunean.



*Mons fils à moi* filmeko irudi bat. Nathalie Baye aktorea ere saritu dute.



ZINEMALDIA

ESTREINALDIAK | GAUR ERE EMANGO DUTE 'KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL

# Gurean ere aurkeztu dituzte Zinemaldiko filmak


*Arrasaten egon dira ikusgai Jose Maria Gonzalez eta Mireia Gabilondoren filmak*

Jon Bereziabar

Ibarreko bi zuzendarik aurkeztu dituzte filmak aurtengo Zinemaldian: dokumental bat eta fikziozko bat izan dira. Jose Maria Gonzalez oñatiarraren *Txoriak galduta egozian* eta Mireia Gabilondo bergararrak zuzendutako *Kutsidazu bidea, Ixabel* esatetsua. Biak ala biak Arrasateko Amaia antzokian ikusteko aukera egon da asteburuan.

Eguen iluntzean, Jose Maria Gonzalezek baserri munduari buruz egindako lana aurkeztu zuen. Haren filmografiaren zati handi baten moduan, jaioterriarrekiko errotzea aztertzen du bertan, Legazpiko baserritar sendi bat ardatz hartuta. Tamalez kalitate txarreko kopia bat besterik ez zuten lortzerik izan Amaian botatzeko, baina lan txukuna aurkeztu zuen oñatiarrek, hausnar eginez, eta baita salatzailea ere.

**'KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL'** Azken euskal filma ere asteburuan bota dute Amaian. Egubakoitzean bertan, Zinemaldian filma estreinatu berria Arrasa-



Jose Maria Gonzalez goian eta *Kutsidazu bidea, Ixabel*-eko antzezleak behean.

ten aurkezten egon ziren Egoitz Lasa eta Lierni Fresnedo aktoreak. Izandako arrakastarekin pozik, aktoreek filmaketa zelako bitxia eta aktoreentzat aberasgarria izan zen azaldu zuten. Hitz gutxi esan zituzten, haiek azaldu bezala aurreko gaueko parrandako ajearekin zebiltzan-

eta oraindik. Egoitz Lasak esan zuen poztasuna ematen ziola euskarazko film bat herriaren ere aurkeztu ahal izateak: "Zuek gabe ez gara ezer" esanez agurtu ziren antzezleak.

Gaur, astelehena, filma ikusteko beste aukera bat egongo da Amaia antzokian, 20:30ean.

MIREIA GABILONDO | ZUZENDARIA

## "Istorioa ezaguna bada ere, gehiago kontatzen da"

J. B.

**Aurreko gauean Tolosan filma aurkeztu eta parranda eginda aurkitu genuen Mireia Gabilondo domeka eguerdian. Hala ere, estreinaldia zelan joan den kontatzeko astia izan zuen. Bai zinemaldian zein Tolosan, txalo zaparradarekin hartu zuten filma zapa-tuan.**

**Atzo, beraz, gauzak oso ondo joan ziren Tolosan?**

Oso gustura ibili ginen atzo Tolosan, eta gero Donostiara joan ginen, itxiera festa zen-eta. Berandu arte ibili ginen bueltaka.

**Gustatu zitzaizuen *Kutsidazu bidea, Ixabel*?**

Jende asko etorri zen, oso harrera beroa egin ziguten. Bukeraren jende asko etorri zitzaigun. Askok sorpresa hartu dute, ze nahiz eta istorio ezaguna izan, filmean gauza gehiago kontatzen baitira, eta hori gustura hartzen da. Askok diote narratzen den unea bera ondo islatzen dela.

**Liburua eta antzezlanaren ostean garrantzitsua zen zuentzat filmak zerbait gehiago eman ahal izatea?**

Hasieratik geneukan hori buruan. Gehiago idazten hasi ginen filmerako eta garbi geneukan zer gura genuen kontatu, pertsonaia gehiagorekin, harreman gehiago...

**Ze ibilbide izango du orain filmak?**

Lehenengo Euskal Herrian zabalduko da filma. Aste bukare-

ra honetan, adibidez, hamar lekutan eman da. 13 kopiarekin atara gara, eta Euskal Herrirako kopuru hori ondo dago. Valentziako batzuei asko gustatu zitzaizuen, adibidez, eta eskatu egin ziguten. Ea kanpoan zer gertatzen den. Sarri pentsatzen dugu gurea delako eta euskaraz delako kanpoan aukerarik ez dagoela, baina gauzek ez dute zertan horrela izan.

**Biziberritzen dabil euskal zinema?**

Zaila da esaten, *ojala* hala balitz, eta betiko. Urtean film bat egitea asko iruditzen zaigu, baina uste dut gehiago egin daitekeela, literaturan, musikan edo antzerkian egiten den moduan. Beharrezko baderitzogu, laguntza eman beharko zaio.

### Adituen iritzia

Zinemara eskuzabal joanez gero, barre egitera joanez gero,, ondo pasa daiteke. Egoera normaletatik umore uneak ondo daude, baina, batzuetan, gehiegi fortzatutako parodia egoerak daude.

Aktore batzuei dagokienez, ezagunenei, gainera, lan nahiko polita egiten dute, baina, pertsonaiarik eskasena egokitu zaizkiela iruditzen zait. Bestalde, telebista telesail baterako pentsatuta dagoela dirudi gehiago, film luze baterako baino.

ANTONIO ZABALA |  
GOIENKARIKO ZINEMA ADITUA

Ezuste polita hartu dut *Kutsidazu bidea, Ixabel* filmarekin. Euskarazko filma izatera, ez du beste batzuek adina pribilegio eduki; nik, neuk, sail ofizialean sartuko nukeen.

Ondo kontatutako istorioa da, antzezlanaren baino osoagoa eta liburuari fideltasunez eusten dio. Aktore ezagun eta berriak ondo uztartzen jakin ditu eta horrek ere xarma berezia eman dio filmari. Euskarazko euskal zinemagintzari bultzada ederra emango dio.

IMANOL GALLEGO |  
ZINEMAN ADITUA

Uste dut Sagastizabalen jatorrizko testuak irakurleari ikusleari baino gehiago barre eragiten diola. Hori izan liteke bai antzezlanaren bai filmaren modu lau, gatzgabe eta arriskurako usaimen gabezia berdinarekin sortu zirelako. Telebistako parametroek ezarritakoaren barruan funtzionatzen du filmak, 80ko estetikara moldatzeko nahiarekin eta Salvadorren soinu banda jostalariarekin; baina hor amaitzen dira filmaren bertuteak.

KOLDO LANDALUZE |  
GARA

Joxean Sagastizabalen eleberria eta ondorengo antzezlanaren ikusi dutenek berehala ezagutuko dituzte laneko zenbait gako, baina ez denak. Izan badirelako ezusteak, eta atseginak, gehienak. Ez dugu ukatuko komedia tonuan eraiki denik, *gag* ugarriak filmeko hauspo nagusi bihurtzen direla sarri, bai hori baino gehiago da obra ezagunaren zinemaratze hau. (...) Amaierak nauka nahasita, ez dudalako uste zinema munduari egiten zaion keinua pelikularen lagungarri denik.

XABIER MARTIN |  
BERRIA



Mireia Gabilondo.

**Zelako bultzada beharko luke euskal zinema?**

Serio hartzea garrantzitsua da, eta, beste gauza askotariko ateratzen den moduan, zinemarako ere atara daitekeela iruditzen zait, baldin eta garrantzitsua

iruditzen bazaigu. Ikuslea bera ere euskal zinema ikustera joan beharko da, babesa emateko. Eta gero leudeke politikariak, eurak dira-eta erabakiak hartzen dituztenak. Ea gauzak aldatzen joaten diren.



'BIDEAK' | AUKERAN DANTZA KONPAINIAK BERE AZKEN LANA AURKEZTU ZUEN EGUBAKOITZEAN ELGETAKO ESPALOIAN

# Bizitzako bideak irudikatu zituzten euren trebetasunak agerian utzita

*Aukeran-ek bere lanik landuena eskaini zuen egubakoitzean, eta hurbildutakoak liluratu egin zituen*

**Non.** Elgetako Espaloia antzokian.  
**Zenbat jende.** Antzokia beteta.  
**Iraupena.** Ordubete inguru iraun zuen dantza ikuskizunak.

Goreti Elortza

22:30ean hasi zen ikuskizuna. Elgetako Espaloira jende ugari hurbildu zen Edu Muruamendiaratz bergararren azken lana ezagutzera. Azken lan hori, *Bideak* izenekoa, aurreko lanekin konparatuz desberdina da zentzu askotan.

## BERRITASUNEN ALDEKO APUSTU ARRAKASTATSUA

Alde batetik, orain arte zuzeneko musika erabili badute ere euren ikuskizunetan, azken lan horretan Xanti Basauri musikagile bilbotarra izan da euren apustua. Haren musika erabiliaz, eszenatoki gainean dantzariak egon ziren, musikari barik.

Bestalde, *acrosport* izeneko teknika erabili dute dantzariak. Teknika horretako truku batzuk ikasita, *Bideak* lanean zenbait sarzitekeela pentsatu zuen Muruamendiaratzek. Eta hori ere bikain egin zuten.

Ordubete inguru iraun zuen ikuskizunean, Alaitz Ormazabalak bere ahots liluragarriaz ahotsa jarri zion ikuskizunari, bideei buruzko hausnarketa egin da. Bertsoak kantatu zituen doinu berezi batekin. Hori ere berrietasuna izan da taldearentzat.

Ramon Gartzia diseinutako arropa zuri-beltzekin, dantza tradizionala eta garaikidea ederki uztartu ditu taldeak.

Edu Muruamendiaratz, Aiert Beobide, Gotzon Poza, Ander Errasti, Iurre Aranburu, Maitane Mugika, Onintza Odriozola, Naikari Galarraga, Garazi Lekuona eta Ane Anza dantzariak euren lana bikain bete zuten egubakoitzean. Eta jendeak jakin zuen euren lana saritzen. Txalo mordoia jaso zituen taldeak ikuskizun amaieran, eta argi gelditu zen dantzak baduela etorkizunik.

Kultura, musika eta koreografia mestizaia duen mundu batean bizi garela nabarmendu nahi izan du Aukeran konpainiak hasi zenetik. Folklore tradizionalako elementuak dantza garaikidearekin bateratzen dituzte azken lan horretan ere. Ikuskizunak bideen eta bidegurutzeen inguruko hausnarketa egiten du. Horretarako, zinta



*Bideak* dantza ikuskizunean makilekin ere trebetasun handia erakutsi zuten dantzariak.

JOSETXO ARANTZABAL

luzeak erabili zituzten, bideak irudikatzeko elementu poetiko gisa. Datorren urtean 10 urte beteko dituen konpainia indarberriturik ikusi dugu lan horretan. Berritasunen aldeko apustua egin dute, eta arrakasta nabaria izan zen egubakoitz gaueko

**Zinta luzeak erabili zituzten bizitzako bideak irudikatzeko elementu gisa**

emanaldian. Urte luzea dute oraindik, euren lana hainbat herri, hiri eta herrialdetan aurkeztuko baitute hurrengo hila-beteetan.

Iparra, hegoa, ekia eta mendebala batzen dituzten bideak, bizitzako bideak ikusgai, beraz.

EDU MURUAMENDIARATZ | AUKERAN KONPAINIAKO ZUZENDARIA

## "Berritu ala hil, horrela dio esaerak, ez al da hala?"

Goreti Elortza

**Aukeran Dantza Taldeko zuzendaria da Edu Muruamendiaratz bergararra. Datorren urtean 10 urte beteko ditu konpainiak, eta harekin hitz egin dugu.**

**Pozik al zaudete zuen azken lan honekin?**

Bai, oso pozik gaude. Horrenbeste lan egin eta gero jendearen erantzuna ona izan da, eta hori benetan da pozgarria. Lan guztietan zerbait berria sartzen saiatzen gara, eta asmatu egin dugula esango nuke. Uztailaren 13an estreinatu genuen Kurasaalean, eta oraindik bide luzea geratzen zaigu.

**Dantza tradizionala eta garaikidea uztartzen dituzue.**

Bai, gure tradizioa erabilita dantza garaikideekin nahasten

dugu. Ezin zara gauza batekin gelditu. Berritu ala hil esaten dute, ezta? (Barre). Ez, egia esan, gure tradizioetik irten gabe, sustraiak gordetzea beharrezkoa baita, elementu garaikideak sartzen ditugu betikoa izan ez dadin.

**Kirol akrobaziak ere egiten dituzue obra honetan. Nola moldatu zarete?**

Bai, dantzari guztiok egin genuen ikastaro bat eta obran *acrosport* delakoa tartekatzea erabaki genuen. Desberdina izatea nahi genuen-eta. Zaila da horrelakoak egitea, baina truku

**"Nahiko zaila egin zitzaigun 'acrosport' teknika ikastea, oso konplikatu da"**

batzuk ikasi eta nahiko ondo moldatzen garela esango nuke!

**Orain arte zuzeneko musika erabili duzue zuen lanetan, eta orain?**


*Bideak*-en apustu asko egin ditugu, eta hau izan da horietako bat. Xanti Basauriren laguntzarekin egin dugu lan, berak egiten duen musika oso egokia iruditu zitzaigun-eta.

***Bideak* du izenburua ikuskizunak; zein bidetaz ari zarete?**

Orokorrean bizitzako bideak ari gara. Batu eta banatzen gaituzten bideak, maitasuna, heriotza, gerrak... tartekatzen dira bide horietan. Azken finean, bizitza bide askok osatzen duten bidea da, eta hori erakutsi nahi dugu lan honekin.

**Non egingo dituzue hurrengo emanaldiak?**

Markinan, Bergaran... Herri askotara eramango dugu gure azken lana hurrengo hilabete-



Edu Muruamendiaratz egubakoitzean Elgetan izan genuen.

tan. Bruselara ere joango gara laster. Lan handia egin dugu bederatz hilabete hauetan eta orain egindakoa erakustea da gure gogoia. Ahal den leku guztietara eraman nahi genuke, jendeak mundu hau ezagut dezan.

**Gogorra al da zure lana?**

Oso gogorra da; gainera, kon-tuan izan partaide bakoitzak bere bizitza eta lana duela, dantzatik bizi izatea oso zaila da-eta. Egunero 2-3 ordu entseatu ditugu. Gogorra da, baina gustukoa bada...



DEBAGOIENENKO II. MUSIKA LEHIAKETA

DANBAKA | ANIZTASUNA ETA TALDEEN MAILA AURTEN ERE AZPIMARRAGARRI

# Erabakita urriaren 20tik aurrera zein taldek hartuko duten parte Danbakan

*Irabazleek diskoa grabatu eta Gaztelupeko Hotsak-ekin kaleratzeko aukera izango dute*

*Hogeigarren parte-hartzailea irakurleek aukeratuko dute asteon, 'Danbaka.com' webgunean bozkatuta*

Jon Berezibar

Urriaren 20an hasiko da Debagoieneko II. Musika Lehiaketa. Epaimahaiak hartu du erabakia, eta dagoeneko aurkezteko moduan daude aukeratutako 19 taldeak. Guztira 20 talde edo bakarlarik hartuko dute parte, baina aurtan, azken partaidea irakurleek aukeratuko dute *Danbaka.com* webgunearen bitartez. Azken taldea zein izango den bozkatzeko mugaeguna urriaren 6a izango da, datorren egubakoitza, eta dagoeneko hasi daiteke botoak ematen.

Kontzertuak hamabostean behin izango dira Elgetako Espaloian. Hortaz, bost jaialdi izango dira, lau talde aldi bakoitzeko. Guztiek jo eta gero, epaimahaiak aditzera emango du erabakia eta esango dute urtarrilaren 15eko finalean ze hiru taldek joko duten. Sariari dagokionez, aurtan diskoa grabatzeko aukera izateaz gain, irabazleek diskoa kalera-tzeko modua ere izango dute, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin lortutako hitzarmenaren bitartez.

Bakarlariek ere tarte berezia izango dute aurtengo Danbakan; hori dela eta, onenak sari berezia jasoko du. Izan ere, aurreko edizioan harritu egin ziren antolatzaileak aurkeztu zen bakarlarikopuruarekin, eta aurtengoan ere sorta polita aurkeztu da.

#### BOZKATZEKO BIDE GEHIAGO

Ikusleek aurtengo edizioan zeresan handia izango dute, hainbat modu egongo dira-eta talderik gogokoena aldeko botoa ema-

teko. Alde batetik, SMS bidezko botoa egongo da, lehenengo Danbakan egin zen moduan; baina bestetik, antolatzaileek aurtan beste bi aukera ere ipini dituzte: kontzertu sorta bakoitzean kutxa bat egongo da bertan botoak utzi ahal izateko, eta, era berean, *Danbaka.com*-en ere izango da botoa emateko modua. Antolatzaileek aurtan ikusleen partaidetza indartu nahi dute, eta horiek izango dira moduak.

#### AURTEN TALDE GUTXIAGO

Bigarren Danbakarako 28 talde aurkeztu dira eta horietatik 19 izan dira aukeratuak. Epaimahaiak pozik dago jasotako erantzunarekin: Iker Barandiaran, Goienako kazetaria; Jul Bolinaga, RIP taldeko kide izandakoa; Iñaki Bengoa, musikaria eta Shot estudioen jabea; Iban Arantzabal, Espaloia Kafe Antzokiko ordezkaria; eta Itziar Iturbe, Bergarako Cool Panic taldeko kidea. Barandiaranek azaldutakoaren arabera, hainbat arrazoi egon daitezke aurtan talde gutxiago aurkezteko, nahiz eta material berria aurkeztuta, aurreko edizioan esku hartutakoek ere har zezaketen parte. Bat izan daiteke ez dutela bi urte hauetan ezer berririk grabatu edota lehiaketa berera birritan aurkeztu nahi ez izatea.

Bakarlarik asko aurkeztu dira aurtan ere, eta sari berezia izango dute



Azkaite Pelox, 23-f, Arianrod eta The 5 Twisters izan dira lehiaketara aurkeztutako batzuk.

Hala ere, "bailara bat izateko zenbaki polita da", dio Barandiaranek, eta "gu baikor gaude aurkeztutako mailarengatik". Elektronikoa, pop-rocka, punka, metala, garagea, grind-corea... Askotariko estiloak berriz ere aurtengo Danbakan eta baita bakarlarik asko ere. Hutsuneren bat egotekotan, aurtan oi! talderik ez aurkeztea harrizkoa iruditu zaio kazetariari. Hurrengo hitzordua, beraz, hilaren 20an izango da. Ordurako aukeratzeko falta den taldea ere zein den jakina izango da.

#### 19 aukeratuak

- **THE 5 TWISTERS:** Arrasate
- **ABY-KEM:** Bergara
- **AZKAITE PELOX:** Bergara
- **BELCEBLUES:** Bergara
- **DRAKES:** Oñati
- **INALECTRIK:** Aretxabaleta
- **IGOR:** Aretxabaleta
- **JIM TNT & AMAIA:** Arrasate
- **KLAKSON:** Antzuola-Zumarraga
- **LITTLE, LITTLE, MUCH:** Arrasate
- **LOS CRETINOS:** Arrasate
- **MAHASTER RIVER:** Bergara
- **MALENKONIA:** Oñati
- **MATX:** Elgeta
- **OZEN:** Arrasate
- **RAUL LASA:** Arrasate
- **SCAM:** Bergara
- **UNNĒA:** Oñati
- **YOTOX:** Bergara

## Kontzertuetarako abonua salgai daude jadanik, askotariko aukerekin

Kontzertuen egunak honako hauek dira: urriaren 20a, azaroaren 3a, azaroaren 17a, abenduaren 1a eta abenduaren 15a. Finala urtarrilaren 12an izango da. Kontzertu bakoitzeko sarrerak 4 euro balio du; Gaztekutxarekin, berriz, 2 euro. Sei emanaldietarako abonua 18 euro balio du eta Gaztekutxarekin, 10 euro. Abonua eta sarrerak eskuratzeko 902 36 38 51 telefonora deitu edo Elgetako Espaloia kafe antzokian edo Goienako egoitzan erosita.

## Datorren astelehenean jakingo da ze talde aukeratu duten irakurleek 'Danbaka.com'-en

Talde bat falta da oraindik erabakitzeko, eta irakurleek egin beharko dute hori, aurtan ikusleen partaidetza bultzatu gura da-eta. Gaur hasi eta egubakoitzera bitartean aukeratu ahal izango da *Danbaka.com* webgunean hogeigarren taldea. Aurkeztu diren talde guztien MP3ak webgunean bertan daude entzuteko. Guztira bederatzi talde geratu dira kanpoan. Datorren astelehenean, urriak 9, argitaratuko da ze taldek jaso dituen boto gehien.

## SMSak, 'Danbaka.com' eta Espaloian ipiniko duten kutxa, botoak emateko bideak

Ikusleek izango duten parte-hartzea handitzea da aurtengo nahietako bat. Horregatik, botoak emateko hiru bide horiek egongo dira.

Aurtan, beraz, berritasunak webgunean eta kontzertuan bertatik bertara botoa emateko moduetan egongo dira. Gaur, esaterako, zabalduko dira azken taldea erabakitzeko botoak *Danbaka.com* webgunean. Hori izango da lehiaketarako erreferentzia puntua.



DEBAGOIENENKO II. MUSIKA LEHIAKETA

# Kolore guztietako estiloak, taldeak eta bakarlariak aurten ere

*Hemeretzi proposamen eta gustu guztiak asetzeko moduko estiloak*

J. B.

Jarraian aurkeztutakoak dira aurten lehiatzen dauden talde eta bakarlariak. Aurten ere deigarria izan da aurkeztutako bakarlariren kopurua: guztira zazpi izan dira, eta epaimahaiak bost aukeratu ditu. Taldeetan ere estilo askotakoak izan

dira, tradizioz punk-rock eta musika gogorragorako joera duen ibar honetan.

**LEHENAK 20AN**

*Danbaka.com*-en emango dute aditzera hilaren 9an, entzuleek aukeratutako taldea eta urriaren 20an joko dute lehenengo lau taldeek Elgetako Espaloian.



**SCAM**

**Nongoak?** Aretxabaleta.  
**Nortzuek osatzen dute?** Mikel Cubillo (ahotsak), Imanol Ramos (bateria), Paulo Casal (gitarra), Ander Romero (baxua). Hainbat gorabeheraren ostean "gogoz eta ilusioz beteta" datoz.  
**Noiz hasi ziren?** 2004. urte bukaeran.  
**Musika estiloa?** Punk-rocka.  
**Hizkuntza?** Ingelesa eta euskara.



**LITTLE, LITTLE, MUCH**

**Nongoak?** Arrasate  
**Nortzuek osatzen dute?** Txarli (gitarra), Jony Cassy Kesi (baxua eta korduak), Hatx *El Aguelo* (ahots nagusia), Momo (bateria eta korduak).  
**Noiz hasi ziren?** 2004an, Mallorcan trago batzuk hartzen zebiltzala. *Little, little, much* ei da ingelesez esaten dakitena.  
**Musika estiloa?** Rocka.  
**Hizkuntza?** Ingelesa eta euskara.



**IGOR**

**Nongoak?** Aretxabaleta.  
**Noiz hasi ziren?** Betidanik gustatu izan zaio abestiak egitea Igorri. Melodiak, gitarra, baxua, nahasketa prozesua... Guztiarekin disfrutatzen du. The Kinks-en *Victoria* abestiaren moduko bat egitea da Igorren ametsa. Jolas antzeko bat da beretzat, "posean" pentsatu barik.  
**Musika estiloa?** Popa.  
**Hizkuntza?** Euskara.



**BELCEBLUES**

**Nongoak?** Bergarakoak.  
**Nortzuek osatzen dute?** Asier Elortza (ahotsa eta baxua), Ibon Larrañaga (gitarra eta korduak) eta Oihan Vega (bateria eta korduak).  
**Noiz hasi ziren?** Iaz. Urte hartako uztailean egin zuten lehen kontzertua.  
**Musika estiloa?** Bluesa oinarri hartuta, soinu indartsua egiten dute eta ahotsak bereziki landu.  
**Hizkuntza?** Ingelesa.




**AZKAITER PELOX**

**Nongoa?** Bergarakoak da Unai Azkarate; *Azkaiter Pelox* du izen artistikoa.  
**Noiz hasi zen?** Urteak daramatza musika egiten, baina 2004ko maiatzean hartu zuen Azkaiter Pelox-en bidea.  
**Musika estiloa?** Rocka. Oro har, eguneroko bizitzan gertatzen zaizkigun bitxikerien gainean egiten du gogoeta bere abestietan.  
**Hizkuntza?** Euskara.



**MAHASTER RIVER**

**Nongoak?** Bergarakoak.  
**Nortzuek osatzen dute?** Unai Azkarate (gitarra elektrikoa eta ahotsa), Fernando Laskurain (12 sokako gitarra elektrikoa) eta Mikel Azkargorta (baxua).  
**Noiz hasi ziren?** 2004ko abenduan.  
**Musika estiloa?** Bluesa, *funk-soul* kutsuko doinuak, ukitu flamenkoko kantuek eta instrumental sailkazezina batzen dituzte.



**OZEN**

**Nongoa?** Arrasate.  
**Nortzuek osatzen dute?** Julen (ahotsa eta gitarra), Alberto (gitarra), Beñat (baxua), Iker (bateria).  
**Noiz hasi ziren?** 2000. urte inguruan hasi ziren taldea sortzeko ideiarekin, gogokoen dituzten taldeen bertsioak eginda. Diskoa kaleratu dute aurten.  
**Musika estiloa?** Rocka eta heavya.  
**Hizkuntza?** Euskara.



**INALECTRIK**

**Nongoa?** Aretxabaletakoa da Iñaki Sagasta.  
**Noiz hasi zen?** Aspaldi dihardu, batik batik abestiak idazten.  
**Musika estiloa?** Akustikoa zein elektronikoa dira bakarlari horren abestiak. Ez du estilo jakinik. Iturri askotatik edan du bere "musika unibertsoa lortzeko".  
**Hizkuntza?** Euskara eta gaztelera, batez ere.



**YOTOX**

**Nongoa?** Bergarakoak da Jesus Mari Arriaran.  
**Noiz hasi zen?** Urte asko daramatza musikan, baina Yotox proiektua aurten egin du, ekainetik abuztura bitartean, bere etxean.  
**Musika estiloa?** Arriarane dio bere "*pajeoen*" ondorioz sortutako zarata, erritmo eta esperimentazioak batzen dituen proiektua dela.



DEBAGOIENENKO II. MUSIKA LEHIAKETA



**KLAKSON**

**Nongoak?** Antzuola  
-kideetako bi- eta  
Zumarraga.  
**Nortzuek osatzen dute?**  
Urtzelai (ahotsa), Arri  
(bateria), Pini (baxua eta  
koroak), Alkorta (gitarra  
eta koroak) eta Iongu  
(pianoa, organoa eta  
koroak).  
**Noiz hasi ziren?** Duela  
urte eta erdi.  
**Musika estiloa?** Rocka.  
**Hizkuntza?** Euskara.



**THE 5 TWISTERS**

**Nongoak?** Arrasate.  
**Nortzuek osatzen dute?**  
Jokin Vitoria (ahotsa),  
Jagoba Domingo (gita-  
rra), Joseba Heriz  
(gitarra), Beñat Osinaga  
(bateria), Xabi Gorostidi  
(baxua).  
**Noiz hasi ziren?** 2004an  
hasi ziren jotzen eta  
dagoeneko maketa bat  
grabatu dute.  
**Musika estiloa?** Rock-and-  
rolla.  
**Hizkuntza?** Gaztelania.



**MALENKONIA**

**Nongoak?** Oñatikoak eta  
eskoriatar bat.  
**Nortzuek osatzen dute?**  
Rober (ahotsa eta gita-  
rra), Iñigo (gitarra), Aitor  
(baxua), Erik (biolina,  
saxoa), Andoni (pianoa),  
Iñaki (bateria).  
**Noiz hasi ziren?** 2002an  
hasi ziren melodia eta  
doinu aberatsagoen  
bilaketarekin.  
**Musika estiloa?** Pop eta  
rocka uztartzen dituzte.  
**Hizkuntza?** Euskara.



**DRAKES**

**Nongoak?** Oñati.  
**Nortzuek osatzen dute?**  
Pasku (ahotsa), Arzu  
(bateria), Josh (baxua),  
Lumbre (gitarra), Alex  
(gitarra).  
**Noiz hasi ziren?** 2002an  
jaio zen taldea. Hainbat  
kontzertu eta abesti  
berriak dituzte, ohiko  
bertsioez gain. Zuzeneko-  
etan indartsuago ager-  
tzen dira.  
**Estiloa?** Punk-rocka  
**Hizkuntza?** Gaztelania.



**ABY-KEM**

**Nongoak?** Bergara.  
**Nortzuek osatzen dute?**  
Mikel Ilarduia (gitarra),  
Rober Ugarte (gitarra),  
Mikel Alvarez (ahotsa),  
Iñigo Ibartzabal (bateria),  
Aimar Lasa (baxua).  
**Noiz hasi ziren?** Egungo  
taldekideekin 2004an hasi  
ziren. Melodiak eta  
egurra batzen dituzte  
abestietan.  
**Musika estiloa?** Hardco-  
rea eta metala.  
**Hizkuntza?** Euskara.



**JIM TNT & AMAIA**

**Nongoak?** Arrasatekoak.  
**Nortzuek osatzen dute?**  
Jim TNTk (Jaime Liza-  
rantzuren gaitzizena)  
Amaia Artzamendi  
musika irakaslearekin  
joko du (biolina).  
**Noiz hasi ziren?** Jimek  
urteak daramatza musi-  
kan hainbat proiektu-  
ekin, bai bakarka zein  
taldeetan.  
**Estiloa?** Dylan eta  
Stones-ak aipatzen ditu.  
**Hizkuntza?** Gaztelania.



**LOS CRETINOS**

**Nongoak?** Arrasate.  
**Nortzuek osatzen dute?**  
Jim TNT (ahotsa, harmo-  
nika eta gitarra), Barbi  
Mysterian (bateria), Ibai  
(baxua).  
**Noiz hasi ziren?** 2002an,  
The Stooges, Johnny  
Thunders, The Sonics eta  
halako taldeen bertsioak  
egiten. Euren abestiak  
egiten hasi ziren gero.  
**Musika estiloa?** Rock-and-  
rolla.  
**Hizkuntza?** Gaztelania.



**MATX**

**Nongoak?** Elgeta.  
**Noiz hasi ziren?** Aurreko  
Danbakan ere aurkeztu  
zen Matx, baina taldeare-  
kin. Matxura taldeak  
atsedenalditxo hartzea  
erabaki eta aurreko  
bakarlari moduan  
aurkeztu da Gorka  
Arizmendiari. "Doinu  
lasaiak" eta "entzuteko  
abesti errazak" aurkeztu-  
ko dituela dio Matx-ek.  
**Estiloa?** Popa.  
**Hizkuntza?** Euskara.



**UNNËA**


**Nongoak?** Oñati.  
**Nortzuek osatzen dute?**  
Alain Anton (baxua eta  
ahotsa), Iñigo Ugarte  
(gitarra eta ahotsa),  
Andoni Correas (pianoa),  
Joseba Lopez (bateria).  
**Noiz hasi ziren?** 2004ko  
neguan hasi ziren  
lehenengo abestiak  
egiten.  
**Musika estiloa?** Pop-  
rocka.  
**Hizkuntza?** Euskara.



**RAUL LASA**

**Nongoa?** Arrasate.  
**Noiz hasi zen?** Hainbat  
proiektutan hartu du  
parte arrasatearrak,  
batez ere punk munduan.  
Orain proiektu berezi  
batekin dator, punka alde  
batera utzi eta bakarlari  
gisa aurkezten da pop eta  
rockera gerturatzen  
asmoarekin.  
**Musika estiloa?** Pop-  
rocka.  
**Hizkuntza?** Gaztelera.





# UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENKO GOIENKARIA II. LEHIAKETA




Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)

## Hauek dira irabazleak!



**1**  
**GATZAGETAKO LORAK** / Idurre Amozarrain.  
Originala eta sinpatikoa da argazkia. Koloretsua ere bada, eta konposizioa eta ideia politak dira, epaimahaiaren iritziz. Gatz lautada zabalari hiru gazteen freskotasuna eranstean jakin du argazkilariak. Argentinako Purmamarca herritik gora (4.100 metrora) dagoen gatzagetan egin zuen argazkia 26 urteko arrasatearrak.



**2**  
**EGUZKIARI BURLAKA** / Mireia Olabe.  
Argiz kontrako honetan diagonalarekin eta argiarekin lortutako oreka azpimarratu ditu epaimahaiak. Conilen (Cadiz) egin zuen argazkia aretxabaletarrak, eguzkia itsaso zabalean gorde aurretik.



**3**  
**KALEKUMEA BASERRIAN** / Iñigo Arriaran.  
Arrasateko umearen poztasunak irribarra sorrarazten du. Elorrixako baserritarra idi parearekin lanetik bueltan zetorrela harrapatu du argazkilariak eta kalekumearen -haren semea- elementua gehitzen jakin du.

### 94 LEHIAKIDE

Lehiaketan 94 lagunek hartu dute parte. Guztira, baina, 300 bat argazki jaso ditugu, lehiakide bakoitzak bost argazki bidali ahal zituelako. Uztailaren 3an ekin genion jasotako argazkiak argitaratzeari eta irailaren 25era bitartean, lehiakide gehienek argazkiak erakutsi ditugu aldizkarian. Horrekin batera, *Goiena-net*-ek horretarako propio sortutako foto-blogean ere argitaratzen joan dira astero-astero. Baita GOITBn erakusten ere.

### GOIENA POZIK

lazko erantzun zabalari eutsiz, bigarren edizio honek erakutsi du degaboiendarren artean finkatzen doala lehiaketa. Alde horretatik, oso pozik dago Goiena, parte-hartzea handia izan delako.

### EPAIMAHAIA

Goienako eta Bergarako Kiñu argazki dendako kideek osatu dute epaimahaia eta ez da erraza izan hiru saridunak aukeratzea. Saridunek asteon jasoko dute saria. Egubakoitzeko *Goienkaria*-n izango duzue irabazleok ezagutzeko aukera.

### Sariak



**1. saria:** Olympus E-500 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.



**2. saria:** Hoteletan gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela, Barceló bidaia agentziaren eskutik.



**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:



Laguntzaileak:



Harpidedun egiteko:

902 36 38 51



ANARI ETA SORKUN | AHOTSEN KONTRASTE BITXI ETA GUSTAGARRIA

# Bi ahots ezin ezberdinago eta biek banda itzelek lagunduta jardun zuten

*Emakume bakarleri gutxi baina maila handikoak daude euskal musikan. Horietako bi, disko berriarekin, Arrasateko 3.60 aretoan izan ziren egubakoitzean*

Jon Berezibar

Ezin ahots ezberdinagoarekin eta nor bere estilo bereizgarriarekin, emakumezko bakarleri indartsu biren kontzertua izan zen egubakoitzean 3.60 aretoan. Disko berria dakarte biek, baina egubakoitzekoa ez zen izan inguruan izan ditugun lehen aldia.

*Inon izatekotan* abesti berriarekin ekin zion azkoitiarrak emanaldiari. Gitarra elektriko biluziko jatorrizko moldaketa alde batera utzi eta banda osoa ipini zuen lanean Anarik, zuzenekoetan daukaten indarra proban jartzeko. Hortik, zuzenean jo zuen *Zebra* disko berria aurkeztera, *Aingura hegodunak*-ekin. *Habiak* eta *Zebra* diskoetako abestietan oinarritu zuen Anarik kontzertua, aurreko aldietan baino zertxobait hotzago, baina ohiko intentsitate eta giro tenkatudun zuzeneko eskainiz. Akaso, hasiera-hasieratik izandako soinu-arazoek zerikusia izan zuten kontzertuaren gorabeheretan. Hala ere, aretoa polito bete zen eta gailur batzuk ere izan zituen, batez ere *Habiak* diskoko abesti ezagunen moldaera elektrikoagoekin. Aipatzekoa da, era berean, Anariren taldea betiko moduan itzel ibili zela, soinua izan zitekeen onena ez bazen ere.

Lekukoa ostean Sorkunek jaso zuen, giro, ikusle eta estilo

aldaketa bortitzarekin. Indartsu hasi eta indartsu bukatu zuen oreretarrak egubakoitzean; fin ibili zen guztiak dantzaraziz.

*Duna*-rekin etorri zen Sorkun. Lan lasaiagoa, atmosferikoagoa, baina zuzenean hezur eta haragizkoa dena. Argi eta garbi geratu zen hori *Nosferatu* abestiarekin hasi bezain laster. Egurra emateko prest etorri zen oreretarra. Hala zuzenekorako *Duna*-ko abestirik indartsuenak aukeratu zituen eta aurreko *Onna*-ri ere gainbegiratu polita eman zion. Ez zuen ahaztu, era berean, iragana, eta Kashbadeko *Oinutsik* bikaina berreskuratu zuen Sorkunek, eta baita Neubaten *Blancomen* ikaragarria ere. Une eta abestirik aipagarrienak, baina, *Lurra*, *Heldu nazazu*, *Non zaude???* eta *Ezamodioa* izan ziren. Urte osoan geratu barik ibili da Sorkun; ziurrenez hura izan da euskal musikaririk lanpetuena azken boladan, baina neke amñirik ere ez zitzaion nabari egubakoitzean. Mailari hasieratik bukaeraraino eutsi zion.

Disko berria kaleratu dute biek aurten eta ez dira nekatu kontzertuak egiteaz



Sorkun bereziki ondo egon zen egubakoitzean.

JOSETXO ARANTZABAL



Soinu arazoak izan zituen hasieratik Anarik.

ASTELEHENKO GOIENKARIA

## Mikel Calvok pozik jaso zuen film laburren lehenengo saria

*Bergarako Kultura Zerbitzuko ordezkariak barikuan banatu zituzten I. film laburren lehiaketako sariak*

M.B.

Lehenengoz deitu du Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzuak film laburren lehiaketa, eta pozik dau-de emaitzarekin. Debagoienera-

ko egindako deialdia izan zen, eta zortzi lan jaso dituzte. "Erantzuna ikusita, litekeena da datorren urtean bigarren edizioa egitea", aurreratu dute zerbitzutik.

Baina ez eurak bakarrik; Mikel Calvo bergararra ere pozik zegoen barikuan Agorrosin ekin-tza-gunean egindako sari banaketan. *Ebaki* lanarekin jaso du lehen saria (300 euro), eta barikuan aitortu zuenez, bere lehenengo film laburra da.

Droga da Calvok laburrerako aukeratutako gaia, eta pertsona batek drogarekin dituen bizipe-

nak kontatzen ditu. Epaimahaiak, hain justu, gaiari ematen dion tratamendua azpimarratu du eta baita ere baliabide gutxi-ekin eginda dagoen arren baliabide horiei zukua ateratzen die-la, egoki erabiltzen dituela.

Bigarren saria (250 euro) Ainize Arrieta eta Juanma R. Pachon bergararrek jaso dute *Mc Guffin* lanarekin. Saria Arrietaren ahizpak jaso zuen barikuan, egileak ezin izan ziren ekitaldia joan-eta.

Sari ematearen aurretik, aurkeztutako zortzi lanak ikusi zituzten bertaratutako 70 bat lagunek.



Irudian saridunak, gutun-azala eskuan dutela, epaimahaiko kideekin.

JOSETXO ARANTZABAL



## Arrasateko Literatura Solasaldietan izena eman daiteke hilaren 10era arte

*Euskaraz, Epaltza, Auster eta Zabalaren liburuak irakurriko dituzte; espainolez, Barnes, Leavitt eta Canetti idazleenak*

Leire Kortabarria

Literatura Solasaldien beste ikasturte bat antolatu du Arrasateko Udal Liburutegiak. Urtero bezala, urritik abendura arte izango dira, euskaraz eta espainolez. Helburua da taldean liburu jakin bat irakurtzea eta horretaz gogoeta eta tertulia egitea. Aurten, euskarazko saioak Iban Zaldia idazleak koordinatuko ditu eta espainolezkoak, berriz, Rikardo Arregik.

Solasaldiotan izena emateko aukera dago kultura etxean urriaren 10era arte.

### EUSKARAZKO LIBURUAK

Euskarazko taldeak irakurriko duen lehen liburua Aingeru

Epaltza iruindarraren *Rock'n'roll* izango da; urriaren 24an komentatuko dute, belaunaldi jakin baten erretratu ironikoa, krudela eta umoretsua era berean, nobela beltz tankera hartzen duena.

Euskarazko hurrengo liburuak hauek izango dira: *Brooklyn-go erokeriak* (azaroak 28), Paul Austerrena –aurten Asturiasko Printzea saria irabazi duena–, New Yorkeko trilogia ospetsuaren ataria eta Austerrren lanean sartzen laguntzen duena; eta Juan Luis Zabala idazle azkoitiarraren *Galdu arte* liburua (abendua 19).

Espainolezko tailerrak, berriz, hauek irakurriko ditu: *La mesa limón* (urriak 17), Julian Barnesena; heriotzaren gaineko ipuin eder, poetiko eta ironiko batzuk; gero, *El cuerpo de Jonah Boyd* (azaroak 14), David Leavitt-ena, ezkonduko bikote baten eta gizonaren maitalearen arteko triangeluan girotuta; eta *La lengua absoluta* (abendua 12), Elias Canetti bulgariarrarena; liburu horretan, egileak bere umezaroko oroitzapenak kontatzen ditu.

### Labur

## Juanjo Altuna arrasatearrak 47 margolanen erakusketa du Miñeon

Juanjo Altuna Akizu margolari arrasatearrak *Espacios en construcción* izeneko erakusketa dauka Miñeon, Arabako Parke Teknologikoan. Paper gainean egindako 47 lan akriliko dira, egin dituen azkenetarikoak. Abenduaren 31ra arte bisita daiteke erakusketa hori parke teknologikoko pabilioi nagusian, astelehenetik zaptura, 09:00-20:00 orduetegian.

Altunak bere kabuz ikasi zuen margotzen. Gaur egun, 63 urterekin, ezagun da margolari eta askoren irakasle moduan.

## Euskadiren gaineko argazki zaharren lehiaketa, KZguneetan

Euskadiko 1975 aurreko argazki lehiaketa antolatu du Eusko Jaur-laritzak, eta KZguneetatik parte har daiteke horretan. Trolley male-tak, reflex kamera digital bat eta belaunaldi berriko bideo-kamerak dira sariak. Argibide gehiago jaso ditzakezue ibarreko KZguneetan edo [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) webgunean.

Antolatzaileek diotenez, Euskadi asko aldatu da urte gutxian, eta lehiaketaren helburua da gure herriak, kaleak, txokoak... zela-koak ziren gogoratzea eta irudi horiek gordetzea.

## Antzezlan batekin hasiko da Loramendiren neguko eskaintza

*Amama Pantxikaren altxor ezkutua* delako antzezlan antolatu du Loramendi euskara elkarteak urriaren 6rako, egubakoitza, Arlutz osteko plazan, 17:00etan. Familia osoak ikusteko moduko lana da, baina batez ere txikienek gozatuko dute. Izan ere, Algora ludotekaren bidez dago antolatuta.

Antzerkia izango da urriko protagonista, izan ere, hilaren 27an, Teresa Lopez de Munain aktoreak bakarriketa bat antzetzuko du: *Ugaztun eme baten irrikak*.

### Hitzorduak

#### BI ARRASATEAR GAZTEK EGINDAKO MARGO ETA POESIA LANEN ERAKUSKETA DAGO IBARRAUNDI MUSEOAN |

*Begirada poetikoa* izeneko erakusketa dago Eskoriatzako Ibarraundi museoan hilaren 15era arte. Maite del Rey filologoa eta Maider Zubillaga Arte Ederretan lizentziaduna, arrasatearrak biak, dira lanen egileak. Batak poesiak ipini ditu erakusketan; besteak, margolanak; eta elkarren artean lotura dute bien lanek: "Hizkuntza desberdinak erabiltzen ditugu, baina sentitzen eta pentsatzen duguna antzekoa da", dio Maite del Reyk.

Hamar bat margolan eta eurenkin batera doazen poesiak dauge erakusketan; horrez gain, jantziak, arrain-ontziak, bideo proiektzioak eta beste ere erabili dituzte.



### ZINEMA |

• *Kutsidazu bidea, Ixabel* filmaren emanaldia Arrasaten Gaur, astelehena, emango dute Amaia antzokian, 20:30ean.

• *Habana blues delako filma emango dute Elgetan* Etzi, eguaztena, film emanaldia egingo dute Espaloia antzokian, 21:30ean.

• *Grizzly man delako filma emango dute Arrasaten* Eguenean, hilak 5, emango dute *Grizzly man* izeneko filma Amaia antzokian, 20:30ean.

Werner Herzog-ek zuzendutako 107 minutuko dokumentala da.

### LEHIAKETAK |

• *Aramaioren gaineko argazki lehiaketa deitu du Udalak*

Aramaioren gaineko argazkien lehiaketa deitu du Udalak, eta aurkezten diren argazkiak Udalak aterako ditu bere egutegi, esku-orri eta beste argitalpen batzuetan. Horrez gain, 200, 150 eta 100 euroko sari bana emango du. Gutun-azal baten aurkeztu behar dira lanak kultura etxean edo udal-etxean, eta beste baten, egilearen datuak. Urriaren 20a da mugaguna.

### IKASTAROAK |

• *Zeramika ikastaroak daude Bergaran eta Arrasaten* Oinarritzko zeramika ikastaroa emango dute urritik ekainera bitartean Bergarako Zabalo-

tegiko dorrean. Izenematea zabalik dago 626 92 04 14 eta 943 20 65 01 telefonoetan. Zeramika ikastaroa antolatu du ere Arrasateko Loixe elkarteak, eta izenematea zabalik dago Gazte Bulegoan (943 77 00 65).

• *Margo tailerra hasiko da Eskoriatzan hilaren 7an*

Urriaren 7an hasiko da margo tailerra. Zapatuetan izango dira eskolak, 14:30etik 17:00etara. Izenematea zabalik dago kultura etxean, eta 80 euro da.

• *Ume eta gaztetxoendako margo ikastaroa Bergaran* 6tik 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoendako margo eta marrazketa ikastaroa antolatu du Beart elkarteak, urriaren 7an hasita. Izenematea zabalik dago honako telefonoetan: 653 71 53 82 (Mayra) edo 665 70 31 75 (Oihana).

• *Klown ikastaroan izena emateko aukera dago* Ipuinak kontatzen ikasteko tailerra antolatu du Oihulari Klown taldeak urriaren 7 eta 8rako Bergarako Aibar baserrian. Izenematea zabalik dago 607 20 45 03 telefonoan edo [virginiakarmelo@euskalnet.net](mailto:virginiakarmelo@euskalnet.net) helbide elektronikokoan.

• *Hainbat ikastaro Loramendi elkartearen eskutik* Bainika, eskulan eta Beinke-Loramendi dantzaren gaineko ikastaroak antolatu dituzte, urriaren hasteko. Izenematea zabalik dago. Horretarako, jo euskara elkartera.

• *Hobetze mailako taila ikastaroa emango dute*

Hobetu gura dutenendako taila ikastaroa antolatu du Arrasateko Tailaginen Elkarteak urriaren 17tik aurrera (30 ordu). Izenematea, honako telefonoetan: 645 70 59 13 edo 943 79 40 79 (Felix).

### ERAKUSKETAK |

• *Unai Azkarateren margolan erakusketa Eskoriatzan* Unai Azkaratek (Bergara, 1980) margolan erakusketa du Eskoriatzako Inkernu. Zortzi margolan dira, tamaina askotarikoak. Collageak dira, eta gai aldetik, abstraktuak, aurreko lan batzuetan inspiratutakoak.

### ANTZERKIA |

• *Antzezlan ikusiko dute Antzuolako erretiratuek* *Terapia de grupo* antzezlan egingo du ONCEko talde batek erretiratuendako hilaren 5ean, eguena, Olanan etxean, 18:00etan, erretiratuen Kultura Astearren barnean.

### ARGITALPENAK |

• *Elgetako zezenketa komikoaren DVDa salgai* Azoka Nagusiko jaietan egin zuten zezenketa komikoaren gaineko DVDa salgai ipini dute. Ostatu tabernan, noizean behin ipini egiten dute DVDa, eta hantxe erosi ere egin daiteke. 12 euro da.



**Zorion agurrak**



ARRASATE  
**Irantzu Arbizu**  
Irailaren 18an, 2 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE  
**Oier Abarrategi**  
Irailaren 29an, 5 urte. Zorionak eta muxu bat, etxekoen partetik.




ARRASATE  
**Lorea Etxabe**  
Urriaren 2an, 4 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi Txikiko lagun partetik.



ARRASATE  
**Kepa Lezeta**  
Urriaren 2an, 5 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi Txikiko lagun partetik.



ARRASATE  
**Unax Iñarra**  
Urriaren 3an. Oso ondo ibili eta zorionak, Zigorrolakoen partetik.




ARRASATE  
**Iñigo Gandarias**  
Urriaren 3an, 4 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi Txikiko lagun partetik.




ARRASATE  
**Juaní Labrador**  
Urriaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE  
**Arantza Mongelos**  
Urriaren 6an. Zorionak eta urte askotarako. Lagunak.



ARRASATE  
**Jone Zubizarreta**  
Urriaren 6an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, familiaren partetik.



ARRASATE  
**Imanol Juaristi**  
Urriaren 10ean, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako, familiaren partetik.



ARRASATE  
**Alejo Mellado**  
Urriaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, lankideen partetik.



BERGARA  
**Martin Lete**  
Irailaren 25ean, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Rosario Iñurritegi**  
Irailaren 29an, 91 urte. Zorionak! Etxekoak eta birloba Martin.




BERGARA  
**Jenifer Caballero**  
Urriaren 4an, 5 urte. Zorionak eta muxu bat, neska handi! Familiakoak.



BERGARA  
**Ibon Muniategiandikoetxea**  
Urriaren 6an, 5 urte. Zorionak eta muxu bat. Etxekoak.



BERGARA  
**Maria Cid**  
Urriaren 8an, 9 urte. Zorionak eta muxu bat! Laura, Oier eta Leire.



ARETXABALETA  
**Mari Angeles Martin**  
Irailaren 26an. Zorionak eta muxu handi bat. Etxeko guztiak.



ARETXABALETA  
**Manex Beltran de H.**  
Urriaren 1ean, 4 urte. Zorionak, pirata! Alaitz, Eñaut eta Monika.

**Zorionak!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENKO GOIENKARIAren bidez!  
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaitza ezusteko ederra!

**Jaiotakoak**




**Manex Juaristi Vega**  
Arrasate • 3,260 Kg. Irailaren 28a. Gurasoak: Irma (Oñati), Iban (Arrasate). Argazkian umea amaren besoetan.



**Izaro Hernandez Urtzelai**  
Aretxabaleta • 3,830 Kg. Irailaren 28a. Gurasoak: Aitziber (Aretxabaleta), Ander (Aretxabaleta). Argazkian amama Kontxirekin.



**Josu Rodriguez Solupe**  
Aretxabaleta • 3,410 Kg. Irailaren 30a. Gurasoak: Leire (Elgoibar), Mikel (Aretxabaleta). Argazkian umea amaren besoetan.



**Amets Bikuña Malbadi**  
Oñati • 3,180 Kg. Urriaren 1ean. Gurasoak: Mirari (Oñati), Xabier (Oñati). Argazkian umea lo.



**Beñat Beitia Filarmandi**  
Aretxabaleta • 4,010 Kg. Urriaren 1ean. Gurasoak: Eider (Aretxabaleta), Ruben (Eskoriatza). Argazkian umea lo.

**Zoriondu ARRASATE IRRATIAN**



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIA**k egunero ematen dizu aukera hori.

**Bidali eskaria:**  
[irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,  
zorion agurren tarte  
**ARRASATE IRRATIAN**

**FM107.7**

**ARRASATE IRRATIA**

**Hildakoak**

**Iñaki Erromaratezabala Faido**  
Aretxabaletan, urriaren 1ean. 75 urte.

**Simon Kortabarria Kortabarria**  
Aramaio, urriaren 1ean. 73 urte.



**ESKELAK**  
ASTELEHENKO GOIENKARIAN

85 euro  
943 25 05 02

ESKELA

**Begoña Ezkurra Pedrosa**

Donostian hil zen 2006ko irailaren 28an, 45 urte zituela.

*Zure indarra, zure irribarrea...  
beti izango dira gurekin.  
Ez zaitugu inoiz ahaztuko.*



BEKEko eskulanetako lagunak.  
Bergaran, 2006ko urriaren 2an.

ESKELA

**Begoña Ezkurra Pedrosa**

Donostian hil zen 2006ko irailaren 28an, 45 urte zituela.

Bergarako San Martin Agirre herri eskolak bat egiten du sendikoen saminarekin.



Bergaran, 2006ko urriaren 2an.



ESKER ONA

**Maria Luisa Iraolagoitia Juaristi**

Bergaran hil zen 2006ko irailaren 21ean, 70 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko urriaren 2an.



**Gaur irratian**

**Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:00

**Zinemaldiaren berri 'Igo autobusera!' saioan**

Uda giroan saioari agur esan, eta Igo autobusera! irratsaioa izango da ekainera bitartean. Gaurko emanaldian, 10:00etatik 12:00etara hainbat gai jorratuko dituzte: besteak beste, Zinemaldia, Imanol Gallego eta Edu Mendibilen eskutik.

**Oñati Irratia**

FM 107.4

'Eguerdiko saioa' | 12:15

**Eguaztenera arte ez da irratsaioarik izango**

San Migel jaiak direla eta, gaur ez da irratsaioarik izango. Eguaztenean, Lau hitz sailean, Mikel Aranburuk Leire Kortabarria GOIENKARIAko erredaktore-burua elkarrizketatuko du. Era berean, *Merkatu txikia* saila izango da eguerdian.

**Euskadi Irratia**

FM 104.4

'Faktoria' | 10:30

**Asteburuak emandakoak aztertuko dituzte**

**Radio Euskadi**

FM 98.2

'Boulevard' | 10:30

**Almudena Cachok gidatutako saioa**

**Herri Irratia**


FM 99.8

'Loiolako porrusaldan' | 12:00

**Asteburuak emandakoari gainbegiratua**

**GOITB programazioa**

Astelehena, 2




**Trial erakustaldia 'Harmailatik' saioan 20:47 eta 22:15**

Berako trial erakustaldiko irudiak. Igor eta Jon eskoriatzarak bikain aritu ziren, biak Suzuki auto banarekin. Jon Diaz da gaurko gonbidatua.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klip@.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Erreportajea.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Klip@ eta MKT.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@.
- 19:15 16 mm.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.
- 20:45 Gaurkoak.
- 20:47 Harmailatik.
- 21:15 Gatza eta berakatza.
- 21:30 MKT.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Gaurkoak.
- 22:47 Erreportajea.
- 23:15 Izan ziren.
- 23:30 Eltze beroa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 3



**'Berbaire': politikaren inguruko tertulia 22:15**

Ohikoa denez, gaurko saioan gizarte eta politika gaiak jorratuko dituzte *Berbaire* saioan. Gorka Etxabe kazetariaren gidaritzapean.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz mintegia.
- 14:15 Klip@.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasunaren bideak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klip@.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Jazz mintegia.
- 17:30 Danbaka.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Behazulo.
- 18:15 Eltze beroa.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klip@.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 20:45 Gaurkoak.
- 20:47 16mm.
- 21:15 Jaiak 2006: Aretxabaleta.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Gaurkoak.
- 22:47 Behazulo.
- 23:15 MKT.
- 23:30 Eltze beroa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 4



**'16 mm' film laburren saioa 15:47**

Amagoia Lasgabaster eta Josu Txintxurretak zuzendu eta ekoizten duten film laburren saioa ikusteko aukera arratsaldeko lehen orduan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Danbaka.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 16mm.
- 16:15 Klip@.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jaiak 2006.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 16 mm.
- 16:15 Klip@.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Sustrai.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Gaurkoak.
- 20:47 Erreportajea.
- 21:15 Jaiak 2006: Oñatiko San Migel jaiak.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Gaurkoak.
- 22:47 Elkartasunaren bideak.
- 23:15 Izan ziren.
- 23:30 Eltze beroa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 5




**Debagoieneko albisteak 20:45**

Ibarrean gertatuko albisterik aipagarrien berri jasoko duzue GOITBko albistegietan. Goiatz Aranak eta Julen Iriondok (irudian) aurkeztuta.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Harmailatik.
- 14:15 Klip@.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Sustrai.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazuloa.
- 16:15 Klip@.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jaiak 2006.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrorratza.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 20:45 Gaurkoak.
- 20:47 Teknopolis.
- 21:15 Gatza eta berakatza.
- 21:30 MKT musika saioa.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Gaurkoak.
- 22:47 16mm.
- 23:15 MKT.
- 23:30 Eltze beroa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 6



**Marrazki bizidunak gaztetxoendako 13:20 eta 20:15**

Egunero, bereziki gaztetxoek zuzendutako marrazki bizidunak ikusteko aukera duzue GOITBn: *Snorkeldarrak*, *Nonochan* eta *Bihurkorrak*.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorrak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Teknopolis.
- 14:15 MKT.
- 14:45 Berriak.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klip@.
- 16:45 Berriak.
- 17:00 Erreportajea.
- 17:30 Eltze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 16mm.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Berriak.
- 19:00 Klip@.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Bihurkorrak.
- 20:45 Gaurkoak.
- 20:47 Behazulo.
- 21:15 Gatza eta berakatza.
- 21:30 MKT.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Gaurkoak.
- 22:47 Sustrai.
- 23:15 Izan ziren.
- 23:30 Eltze beroa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

**Kamera aurrean**



**"Nik uste jende gehiagok hitz egiten duela euskaraz, baina gehiago ahalegindu beharko liriteke gutxi dakitenak"**

MIREN ARREGI |  
ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA  
Berriak, 2006-09-27



**"Debagoieneko beharrei erantzungo dien ospitale modernoak izango da Arrasaten egingo duguna"**

GABRIEL INCLAN |  
OSASUN SAILBURUA  
Berriak, 2006-09-28

**'Jaiak 2006'**

**SAIO BEREZIAK**

Aretxabaletako jaiak martitzenean eta Oñatiko San Migelak eguaztenean, 21:15ean





Urriaren 2a: 101 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA  
Harpidedunen  
**txokoa**

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, urriak 2, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

Harpidetza kuota:

**24 euro**

2006 bukaera harte.

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

101  
zozketa  
saridunak


Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**



PAMIELA argitaletxeko liburu sorta bat.  
Iñaki Egidazu Altuna (Arrasate)

## Urriaren 9ko sariak



**DONOSTIAKO  
AQUARIUM**<sup>a</sup>  
bisitatzeko gonbidapen bat.  
(saridunari bi emango zaizkio)



## Hamarrekoa

JOSE LUIS KORTA | PATROIA OHIA

### "Realak olatu ona eta luzea hartu behar du eta nire beharra badute, joango naiz, no?"

Oihana Elortza

#### 1. Zergatik diozu horrenbeste debozioa Arantzazuko Amari? Lehen, auto berria erosten genuen aldiro etortzen ginen Arantzazura, bedeinkatzera. Gero, 2001. urtean, iloba txikia zela hasi ginen urtero etortzen, beti Kontxako bandera jokatu baino lehentxeago. Agindu nuen irabaziz gero Arantzazura ekarriko nuela bandera bedeinkatzeko, eta orduan ere bete nuen promesa.

#### 2. Ze entrenamendu egin duzu Oñatitik Arantzazura oinez eta oinutsik igotzeko? Oso gutxi, egun baten bakarrik ibili naiz oinutsik. Hara eta hona nabil aspaldian eta ez dut astirik izan.

#### 3. Donostiatik Castrora arraunean egun bakarrean egingo zenuela uste genuen askok. Eta egingo nuen gazteago eta sasoiuago banengo. 12-14 ordu egin ditut arraunean guztira eta kalkulatu dut dena segidan eginez gero 10-12 ordu beharko nituela.

#### 4. Ezer hartu gabe bete duzu apustua? Txokolatea, jogurtak, plata-

noak eta ura eraman nituen txalupan, eta horiek jan ditut noizean behin.

#### 5. Noraino heltzen da Ortzakako kasta? Odolean daramagu hori. Aurrekoak ere arraunean ibili ziren eta gu ere horretan gabil-tza, barruan daramagu.

#### 6. Zure ondorengoez ere odol bera dute? Alaba eta semea ibili ziren lehen arraunean. Orain utzita dute, surfa gehiago gustatzen zaie. Hala ere, itsasoa gertutik bizi dugu denok; semea, adibidez, urpekari profesionala da.

#### 7. Castro utzita, non biziko zara aurrerantzean? Castron. Hau ere lanerako baino oportetarako toki hobea da, baina familia guztia hemen bizi da eta baita ni ere.

#### 8. Real makal samar dabil eta zu bezalako prestatzaile edo animatzaile baten beharra izango du agian. Deitzen badidate joango naiz, edozertan lagunduko diet. Baita Athleticetoei ere. Olatu ona eta luzea hartu behar du Realak. Gutxitan egoten dira horrelakoak, baina egokitzen dira pare-



JOSETXO ARANTZABAL

Kontxako bandera irabaziz gero bi promesa beteko zituela esan zuen Jose Luis Kortak: Donostiatik Castrora arraunean joan eta Oñatitik Arantzazura oinez eta oinutsik igo. Domekan bete du bigarrena. Izerdiak gatz handia askatzen duelako, bere mutilei ur gazia eman izan diela dio Kortak; Korta, sasoiak ez dagoela esaten duen arren, gutxi prestatuta etorri da Oñatira.

an, eta aprobetxatu egin behar dira olatu horiek.

#### 9. Andreari egiten diozu kasu? Gehienetan. Arropa, adibidez, hark esandakoan erosten dut.

#### 10. Bi iloba dituzu, Irati eta Oier. Jarriko zenuke Izortz izena hirugarrenari? Ez da izen txarra. Izenak ez du pertsona egiten, barrukoak balio du, izenak ez du zerikusirik izaten.



### Biharamuna

Marijo Deogracias

### Marutegiko zubipetik

A maitu dira urtero gure artean ikusmina sortzen duten bi ikuskizun: bata atzo bukatu zen; **Jeanne Moreau** Donostiako Zinemaldiko epaileen zuzendariak aurtengo film sarituak iragarri zituenean, *Mon fils à moi* eta *Half moon*; bestea, berriz, barikuan: Espainiako armadak maniobrak amaitu zituenean. Horren bueltan aritu dira asteon egunkarietako albiste eta irratietako esatarien komentarioak, besteak beste. Neuk, ordea, amari bisita egin diot eta beselako kontuak entzun ditut herrian: lehenengo zapatuko ordu bietako autobusaren kontura, Lurraldebusen autobus zerbitzua gehitu duela herrian; bazen ordua! Eta gero, Moxeko kanpoaldean nintzela, koadrilako lagunekin, oinezkoendako zubitik **Marijo Garcia** agurtu gintuen. Marutegiko zubia izena dauka eta orduan galdere: zergatik Marutegi? **Rakel Parraren** teoriaren arabera, "marujen topaleku" izan delako ingurua. Barregura eragin zigun komentarioak; ona litzateke lantzean behin kaleko berriemaileei halako omenaldiak aitortzea. Baina ez; **Cristina Pavok** herriko toponimia modan jarri zuenez, Marutegi lekuari berrari omenaldia da zubia. Hala ere, aitortu behar dut Rakelena hobea zela. Txutxu-mutxu zale asko dago gurean; guztiok dugu gure kotillatxoak barruan. Niri kasu, kontatu didate **Fernando Lamikiz** klubeko jantzi denda bateko saltzaile batekin ateratzen dela. Egunero gertatzen diren kontuak dira, baina ez didazue ukatuko baduela morbo apur bat, batez ere **Sarrigarteren** hamaikakoak izan duen azkeneko astebetea ikusita. Ba hori, neu ere Marutegiko zubiko klubera gehitu behar naizela.



**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

**TRIKITIXIA**  
Bexamelak ta pastelak (Maizta ta birri) | **BEXAMELA**  
Bokespok (Kopa Junkera) | **BOKESPOK**  
Hik lan eta nik jai (Fajala) | **HIK**  
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | **ITSAS**  
Kupela (Egilde eta Larrañaga) | **KUPELA**  
Mila galdera (Aitz / Maider) | **MILAI**  
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**  
Ny Hirahira (Kopa Junkera) | **HIRA**  
Txanpon baten truke (Aitz / Maider) | **TXANPON**

**Himnoak**  
Eibar | **EIBAR**  
Athletic Club | **BILBAO**  
Osasuna | **OSASUNA**  
Reala | **REAL**  
Real Union | **UNION**

**Herrikoak**  
Bagare | **BAGARE**  
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+**KODEA**  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP+hutsunea+**KODEA**  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL+hutsunea+**KODEA**  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ+hutsunea+**KODEA**

**5767** zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2€ + BEZa

**SOINUAK ERREALAK (2 SMS)**

**LOGOAK (SMS 1) KODEA**

IKURRIA	ADARIAK	MUSKARIA	EGUZKILORE1
EHI	BABAK	KALABERA1	EGUZKILORE2
BILBO	BERAKATZAK	POPATIK	EGUZKILORE3

**OHARRAK**  
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragari](http://www.smsoinu.com/bateragari)  
Bertan jasiko duzu beharrezko dutun informazio guztia.  
2. **BALINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPS sistema aktibatuta izatea. GPS sistema aktibatzeak, jar zaitaz zure hormizalearekin harremanetan. Alia ematea duan da eta KB jaitziera bakarik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan dela eta GPS sistemaren alia ematea duan dira.  
\* Euskaltel: deitu: 900 84 02 00 telefonora. \* Vodafone: deitu: 123+2. \* Movistar: deitu: 609+.  
3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu: 902 01 21 48 telefonora.  
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzaitegun abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu: 902 01 21 48 telefonora.

1,2,3,4...Real! | **REAL**  
Alboka | **ALBOKA**  
Athletic Iuep! | **IUEP**  
Buztan bertsoa | **BERTSO**  
Hartu... Aitareta ta semea... | **AITAREN**  
Hartu... Ansar | **ANSAR**  
Hartu... Argentinarra | **ARGEN**  
Hartu... Miami | **MIAMO!**  
Independentzia | **INDEPEN**  
Irrintzia | **IRRINTZI**  
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**  
Milazu (pilota) | **MILAZU**  
Suprinua | **SUPRINU**  
Tobera | **TOBERA**  
Txalaparta | **TXALA**  
Txanbela | **TXANBERA**  
Txoxtx | **TXOTX**

Ikusi Mendizaleak | **MENDI**  
Pintxo-pintxo | **PINTXO**  
San Simon eta San Judas | **SAN**  
Jailetakoak  
Artillero dale fuego | **ARTILLERO**  
Marijaia (Kopa Junkera) | **JAJIA**  
San Fermin | **FERMIN**  
San Martzialetako alardea | **SAN MARTZIAL**

**Folk**  
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**  
Bai euskarari (Pantboa) | **BAI**  
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**  
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | **BIZKAIA**  
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**  
Euskal Herria Euskaraz (Oskorri) | **EUSKAL**  
Euskaltun berriaren balada (Oskorri) | **EUSKALDUN**  
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**  
Furra Furra (Oskorri) | **FURRA**

WEBGUNEAN ➔ [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)